2021-11-05 OSTIRALA / 794. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

Bakaikoa vs Urrutikoetxea III.a, Promozioko Lau eta Erdiko finala etzi Altsasun / 17

Udalek heldu den urtean aurten baino 909.141 euro gehiago jasoko dituzte / 12

Sakananet, zuntz optiko mankomunatua urte akaberarako erabilgarri izanen da / 5

Hodei Magoaren 'Ezinezkoaren logika' ikuskizunaren emanaldi bikoitza Etxarrin eta Altsasun / 23

Heldu den mugikortasuna

Sakana KudeaGO aplikazioak, besteak beste, autoa partekatzeko aukera eskainiko du / 12-13

AZAROAREN 26AN
Eguberrietako gehigarria
ZURE PUBLIZITATEA HEMEN
PUBLI@GUAIXE.EUS | 661 523 245 | 948 564 275 (1 LUZAPENA)

Izaskun Aldaia Legarra eta Oskar Fernandez Puente irakasleak dira Sakana Lanbide Heziketa institutuan.

"Enpresa guztiek behar dute halako mantentze lana"

IZASKUN ALDAIA LEGARRA ETA OSKAR FERNANDEZ PUENTE ZIKLOKO IRAKASLEAK

Ikasturte honetan Sakana Lanbide Heziketa (LH) institutuak bere euskarazko bigarren ikasketa du: Mikroinformatika sistemak eta sareak. Erdi mailako zikloa da

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Hasi berri diren ikasketak bi ikasturteko iraupena dute. Haiek despedituta ikasleek ordenagailuak konpontzen edota haiek lotzeko sareak sortzen jakinen dute. Baita mantentze lanak egiten ere.

Mikroinformatika sistemak eta sareak ikasketak erakusten duzue. Hasteko, zer da mikroinformatika?

Oskar. Sistema informatikoekin lan egitea da, batez ere. Informatika eta informatika sistemak lan askotan erabiltzen dira. Hemen nahi duguna da ikasleek jakitea nola erabiltzen diren informatika sistemak, zertarako erabiltzen diren eta nola konpontzen diren.

Informatika sistemez ari garenean, zertan pentsatu behar dugu, ordenagailu baten tripetan?

O. Bai, batez ere horretan, ordenagailu baten tripak. Baina ez hori bakarrik, programak... Informatikak arlo asko ditu, eta ezin da zabalera handia hartu. Baina pixkanaka-pixkanaka informatika guztia ezagutuko dute.

Izaskun. Sare txikiak, periferikoak... Eskala handian izan gabe, informatikarekin lotutako dena. Zerotik instalatzetik eta konponketaraino iritsi daitekeena irakasten dugu.

O. Konponketa txikiak, arazoak zein diren ezagutu eta nola konpondu daitezkeen.

Baina ikastaroaren izenean mikroinformatika sistemak bai, baina sareak ere aipatzen dira. Zer dira?

I. Ordenagailuen artean lotura eta komunikazio hori ziurtatzea litzateke. Eskala txikian bulego batekoak, edo etxekoak.

O. Ordenagailuak sare txiki batean nola komunikatzen diren, zein diren aukerak, hori garatzeko, mantentze lanak egiteko, eta horrelako gauzak irakasten ditugu.

Informatikaz inguratuta bizi gara. Ikasketa horiek lan irteera handiak dituzte?

I. Gero eta gehiago. Gainera, hori bukatzen ez den esparru bat da. Beti gauza berriak sortzen dira. Prestatzen joan behar da. Garai batean, mugatuagoa zen, baina gaur egun mikroinformatika enpresa guztietan dago. Eta enpresa guztiek behar dute mantentze hori.

Batez ere mantentze lanak egiteko litzateke?

O. Bai, mantentze lanak egiten ditugu. Modulu bat bereziki ekipamenduen muntatzeari eta mantentzeari eskainita dago. Modulu horretan ordenagailuak zabaltzen, konpontzen eta muntatzen dira, tripak ikusten dira batez ere.

Zein modulu gehiago daude?

I. Ofimatika aplikazioak, bulego batean erabiliko diren ordenagailuko programez aholkatzeko.

"ORDENAGAILUAK KONPONTZEN, MUNTATZEN ETA SAREAK EGITEN IKASIKO DUTE"

Duela 28 urte

Euskarazko ikasketak eskatzeko Lanbide Heziketako ikasleak ia hilabete egon ziren greban. Zurgintza ikasketetan euskarazko klase orduak asteko 19 ortutik 11ra jaitsi zituen Nafarroako Gobernuak. A ereduan 18 eta D ereduan 10 ikasle matrikulatu ziren. Hezkuntza Departamentuak esan zuen 25 ikasle matrikulatu ez zirenez, D eredua ez zuela ezarriko. Gurasoek foru administrazioa kritikatu zuten "argi eta garaiz" ez jakinarazteagatik D eredua ezarriko zen edo ez. Bestalde, ikasturte hartan LHrako 22 irakasle erdaldun eta 5 euskaldun kontratatu zituen gobernuak: irakasle elebidunak kontratatu ez izana salatu zuten. Hezkuntza Departamentuari gogorarazi zioten Sakanako 100 ikasle Agurainen D ereduan ikasten ari zirela eta horrek ikasleen familiei gastua sortzen ziela. Modu honetara, UPNko gobernuak gastu bat kentzen zuela salatu zuten eta D ereduaren alde ez zela busti.

Ikasleek 1993ko irailaren 30etik lastailaren 25era egin zuten greba. Haien aldarrikapenak Iruñera eraman zituzten, hezkuntza ordezkaritzaren aurrean agerraldia eta eserialdia eginez. Manifestazioak Altsasun eta Iruñean egin zituzten. Ia hilabeteko protestaldiaren ondoren klasera bueltatu baziren ere, mobilizazioekin segitu zuten. Aldarrikapena ordutik bizirik egon da, baina 2018ra arte Sakana LH institutuak ez zuen euskarazko ikasketarik hartu.

Erabili daitezkeen programak, laguntzeko. Beste modulu bat sareak muntatzeari buruzkoa da, antolaketa eta mantentzea nola egin behar diren.

O. Sistema eragileak ere, esaterako, Windows edo Linux. Nola instalatzen diren… Sistema eragileei buruzko aspektu guztiak ikusten dira.

I. Sortzen diren beharrak. Azkenean arlo hori oso zabala da eta ikasleek jakin behar dute zein aukera dauden sortzen den eskaera horri erantzuna emateko. Enpresa batek behar baditu hainbeste ekipo, halako sistema eragilearekin eta halako ezaugarriekin, eskaera horri ditugun tresna guztiekin, edo aukera guztiekin, erantzun onena ematen jakin.

Beraz, ikasleek kuadrillako guztiak lagun izanen dituzte: "aizu, ordenagailuan arazo bat dut".

O. Beste lanetan berdina gertatzen dela suposatzen dut. Autoak konpontzen badituzu: "nire autoari hau gertatzen zaio". Eta informatikan, gauza bera.

Praktikak ikasgelara ekarriko dituzte, zuekin zalantzak argitzeko?

I. Hasieran gaude, eta oraingoz ez da tokatu. Baina gerta daiteke. Helburua ere litzateke ikastetxean sortzen diren arazoei konponbidea hemendik bideratzea, kasu praktiko gisa.

Sakanako enpresek halako langile profila eskatzen dute?

I. Halako ezagutzak dituen langileak leku guztietan behar dira.

Zikloa despeditu eta lanean hasi nahi ez dutenek, ikasten segitzeko zein aukera lukete?

O. Sakanan momentuz aukera gutxi, baina beste toki batzuetan beste ziklo batzuk daude, sistemak administratzeko. Beste aukera bat da programazioa ikastea.

I. Lanbide Heziketako goi zikloak dira. Aurrekoan ikasle batek aipatu zuen Sakana Lanbide Heziketa institutuan badagoela robotikarekin lotutako modulu bat. Ikasketa hauekin nolabaiteko lotura izan dezake. Bere asmoa da hemen ikasten jarraitzea.

Bien artean ematen dituzue zikloko ikasketa guztiak. Zer moduz hasi duzue ikasturtea?

I. Oraingoz ongi. Badu bere alde txarra eta ona. Koordinazio handia dugu, elkarrekin ongi moldatzen gara, eta elkar asko laguntzen dugu. Jende asko egonen balitz, agian zailagoa litzateke. Lan handia dago, baina uste dut positiboa dela. Elkarren klaseetan sartu gaitezke laguntzera. Ez dugu inolako arazorik.

O. Zerotik hasi ginen, gela prestatzen, dena prestatzen. Pixkanaka aurrera goaz, arazorik gabe. Ikasle gutxi daude, eta hori guretako ona da, haiei arreta hobea eskaintzeko.

Zenbat ikasle dituzue?

I. Zazpirekin hasi ginen. Eta beste hiru gehitu dira gerora.

Badakizue zergatik eman duten izena?

I. Lehenengo egunean galdetu nien ea beraiendako lehen aukera zen, eta gehienek baietz esan zuten. Askotan gerta daiteke ikasketetan lehen aukera da ez dakit zer egitea, bigarrena beste bat eta… Baina beraiek, badirudi nahiko garbi zutela, zeren gehienek lehen aukera gisa zuten mikroinformatikarena. Gustatuko zaie, edo irteerak dituelako…

Mikroinformatika sistemak eta sareak. Ikasketa sortu berria da, edo aurretik bazegoen?

O. Aurretik gaztelaniaz zegoen. Ez dakit zenbat urte, baina urte asko.

I. Euskaraz ere bai. Iruñeko Mariana Sanz institutuan euskarazko lerroa dago.

Orduan haiek material bat aurreratuta izanen dute, euskaraz. Pasa dizuete edo zerotik hasi zarete?

O. Programazioak batez ere. Nik, momentuz, material gutxi daukat, ez dut asko lortu.

I. Ni joan den urtean Mariana Sanz institutuan izan nintzen, erdarazko lerroan. Laguntza pixka bat eskatu dugu, eta utzi izan digute. Zerotik hasi gara, baina, alde horretatik, erreferentzia puntu bat badugu, eta lagungarria da. Azkenean, materiala beti pertsonalizatu behar duzu, zure modura ekarri behar duzu.

Joan-etorriko harremana balego…

O. Hobe litzateke, bai. Baina ez bakarrik Iruñeko zikloarekin. Komunitate osoan, antzeko moduluetan, gehiago bultzatu behar da koordinazioa.

Beraz, harremana baduzue, baina materiala itzultzea-edo tokatuko zaizue.

I. Moldatzea. Azkenean, libururik ez dugu. Gutxi dago, eta dagoena erdaraz da. Orduan zuk apunteak eman behar dituzu eta…

Halakoetan Hezkuntza Departamentutik laguntza ematen dizuete?

O. Ni komunitate horretan berria naiz, eta ez dakit laguntzarik dugun edo ez. Bakoitzak bilatu behar du nola moldatu. Batzuetan uste dut irakasle lana beharrean itzultzaile lanak egiten ari naizela. Horrela izan behar da.

Itzultzerakoan hitzekin, terminologiarekin, zalantzak sortzen zaizkizue?

I. Itzultzaile neuronalen laguntza dugu, baina…

O. Interneteko Euskalterm webgunean laguntza teknikoa bila dezakezu.

LHkoak ikasketa praktikoak dira. Tailerrak izaten dira. Zuek halakorik baduzue?

I. Behin behineko gela batean ari gara. Gure gela izan behar dena obretan dago, agorrilaren 27an hasi ziren lanak. Horrela gaude, ondoren, ez dakit.

O. Klasean bertan aukera dugu ordenagailuak muntatzeko, zabaltzeko…

I. Horrela dago ikasle gutxi dugulako. Zeren ikasle gehiago egonen balira, eta gela beteko balute, ez dakit non eginen genukeen.

Ordenagailuko plakak atera, soldatu…

O. Momentuz ez dugu soldatu, baina behar bada egin beharko dugu. Oraingoz ordenagailuak zabaldu eta gauzak kendu eta jarri ibili gara. Osagai nagusiak ezagutu.

Beldurra kentzen?

I. Hori da.

Ikasketa honek berarekin ikastetxetik kanpo praktikak egitea dakar. Enpresak bilatu beharko dira horretarako, ezta?

O. Bai. Aurten, momentuz, ez dute enpresetan praktikarik eginen. Baina hurrengo ikasturterako hemengo enpresak bilatu beharko ditugu, ea zein diren haiek praktiketara joateko aukerak.

Elkarrizketa musukoak jantzita egin dugu. Zer moduz COVID-19arekin?

O. Moldatu behar dugu. Hau tokatu zaigu, eta osasuna zaintzeko egin behar da. Ez dago besterik. Leihoak eta ateak zabaltzen ditugu korronte pixka bat izateko. Ikusiko dugu noiz bukatzen den.

Ikasketak euskaraz dira. Ikasleek euskaraz hitz egiten dute?

"INFORMATIKA OSO ZABALA DA ETA IKASLEEK JAKIN BEHAR DUTE SORTZEN DENARI ERANTZUTEN"

"GUSTATZEN ZAIELAKO, IRTEERAGATIK, IKASLE GEHIENEN LEHEN AUKERA IZAN ZEN HAU"

Institutuaren eskaintza

Goi mailako zikloak:
- Industria Mekatronika.
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa (ikasketa duala).

Erdi mailako zikloak:
- Mantentze lan elektromekanikoa.
- Soldadura eta galdaragintza.
- Araubide bereziko kirol ikasketak bai mendi ertaina bai eskalada.
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonei laguntza (euskaraz).
- Mikroinformatika sistemak eta sareak (euskaraz).

Oinarrizko Lanbide Heziketa
- Merkataritza zerbitzuak.

Ziurtagiriak
- Lanean ari diren langileak titulazioa lortzeko profesio ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

I. A zer borroka dugun horrekin! Kostatzen zaie! Heldu diren lekuetatik ohituta daude, eta erdarara erraz jotzen dute. Hor erronka handia dugu!

Euskarazko bigarren ikasketak dira. Sakanako ikasle gehienek D ereduan ikasten dute. Institutuan euskara entzuten da? Edo arrotza da?

O. Euskara gutxi erabiltzen dute normalean. Hemen klasean euskaraz hitz egitera behartuta daude, baina batzuetan ez dute euskaraz hitz egiten. Kostatzen zaie.

I. Egia da euskarazko bi modulu daudela bakarrik, baina irakasle euskaldun asko dago erdarazko klaseak ematen. Baina ikasleen artean kostatzen da. Kuadrilla berdinekoak badira, ohitura badute… Baina ohitura berriak hartu behar dituzte, eta erraztasun handiarekin erdarara jotzen dute. Harremana hasi behar duten momentuan erdarara jotzen badute, akabo. Badirudi bidea hartzen dutela eta hortik jarraitzen dute. Kostatzen da.

ASTEKOA

YOLANDA OLASAGARRE

Argindarra

Denon ahotan bolo-bolo dabilen arazoa dugu argindarraren prezioarena. Egunero entzuten dugu albistegietan argindarra zer preziotan ordainduko dugun hurrengo egunean, bidenabar, horren zergatiaren azalpena ematen zaigu eta, badirudi, behin eta berriz entzutearen poderioz, ideiaren bat hartzen ari garela zergatik ordaindu behar dugun halako dirutan argindarra. Ezin dugula ezer egin hori aldatzeko ere esaten zaigu eta etsitzea besterik ez zaigu gelditzen. Aho zabalik gaude halako harridura puntuarekin.

Egoerak denoi eragiten badigu ere, horretan, neurri batean bederen, pandemiaren antzekoa da. Hala ere, baldintza kaxkarragoetan bizi diren herritarrei askoz gehiago, beti bezala.

Gezurra eta sinestezina dirudi horrela egotea, baina halaxe gaude.

Ez dakit gauza handirik gai honi buruz, baina esanen nuke, arazo honek azkenean energia enpresei ere eraginen diela, ze azken finean bestelako enpresa handiak kalte handiak jasaten ari dira haien etekinetan eta horiek presioa ere eginen diete prezioak beste modu batera arautzeko. Pentsa horrelako prezioek zer-nolako eragina izanen duten Administrazioak dituen zerbitzu eta eraikin guztien gaineko gastuetan (hezkuntza, osasunbidea…) edo Sakana Kooperatiba bezalako enpresen gain, adibide bat jartzearren.

Gezurra dirudiela esaten dut ze ezagutzaren gizartean gauden honetan, nahi izan denean eta ezagutza, jakintza, giza baliabideak eta horretara dedikatutako baliabide ekonomikoak egon direnean (alegia ere, bazeuden), zeinen azkar sortu den COVID19aren aurkako txertoa. Beharrik!

Nola da posible gaur egungo energia iturri eta ereduei beste modu batera aurre ez egitea? Hain zaila al da? Non daude oztopoak eta erresistentziak aurrera egiteko? Nork jartzen ditu oztopoak? Apika, gurpil zoro hori hausteko mikro mailan eragin beharko ditugu aldaketak, ea horrela posible den makro mailara ailegatzea. Abestiak dioen bezala *Hik bultza gogor hortikan, ta bultza nik hemendikan, ikusiko den/k nola-nola laister eroriko dan.*

Austriako Gobernua hasi omen da bere gizartea itzalaldirako prestatzen. Ez da ideia txarra, horrela gizartea prest izanen dute balizko egoera horretarako eta, bien bitartean, jendea kontzientziatzeko ere balioko duela uste dut.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Nafarroa Trenaren Alde plataformaren aurkezpena

SAKANA TRENAREN ALDE

Mugikortasunaren auzia ezbaian dagoen garaiotan, afera honi zentzuzko irtenbide bideragarri bat topatu nahian, tren publiko eta soziala babesten dugun herrialdeko zenbait plataformek Nafarroa Trenaren Alde Plataforma aurkeztu genuen pasaden lastailaren 6an.

Egun Nafarroak daukan tren eredua birpentsatu behar dela defendatzen dugu. Garraio kolektibo eraginkor eta jasangarriena izan arren, zokoratuta utzi dute bailara honetan geltoki eta geralekuak itxiaraziz. Gure herrietatik igarotzen den tren sarea Nafarroako herritarron eta merkantzien garraioaren tren beharretara egokitu dadin aldarrikatzen dugu. Izan ere, gure egungo trenbide sareetatik edozein tren mota igaro daiteke azpiegituretan moldaketa gutxi batzuk eginda, inpaktu askotarikoak murriztuz (ingurumenekoak, ekonomikoak, sozialak, eta abar) eta beste batzuek defendatzen dituzten makroproiektuak saihestuz.

Ildo horretan aurrerapausoak emateko mugarria izan zen maiatzean trenbide sektoreko sindikatuek Iruñean, Gasteizen eta Burgosen aurkeztutako ekimena, baita Teruel-Zaragoza eta Castejon-Logroño trenbideetan egokitzapenak egiteko Espainiako Gobernuak egindako apustua ere.

Honengatik guztiarengatik beharrezkoa ikusten dugu daukagun tren sarea berregokitzea, eta argudio hau ebidentzia teknikoekin oinarritzeko ingeniari talde bati azterketa garatzea eskatu diogu. Aurrerantzean ekimen honen berri zabalduko dugu, guztion inplikazioa beharrezkoa izango baita ikerketaren 15.000 euroak biltzeko crowdfunding-a ipiniko baitugu martxan. Lortuko dugu!

ZUZENKETA

Joan den astean, Sarayko elkarteko presidente Mari Jose Oraa Ezkerri elkarrizketa egin genion. 12. orrian jarritako argazkian erdian zegoena ez zen bera, elkarteko lankide Mari Cruz Garde baizik. Barka nahasketa.

OBJEKTIBOTIK

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA
www.guaixe.eus

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa kirolak@guaixe.eus eta Erkuden Ruiz Barroso kultura@guaixe.eus

Maketatzailea: Iune Trecet Obeso maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea: Eneida Carreño Mundiñano publi@guaixe.eus

Koordinatzailea: Goizeder Anton Iturralde fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu 948 564 275 618 882 675

GK diseinu zerbitzua: Ainara Santiago Langarika info@gkomunikazioa.eus 948 564 275 (3 luzapena) 619 821 436 Ainhoa Etxeberria Pikabea gk@gkomunikazioa.eus 618 640 056

Administrazioa: Gema Lakuntza Lopez admin@guaixe.eus

Zuzentzailea: Maider Gabirondo Zelaia

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Guaixek ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Mank sakana

BAZKIDEAK

mecna

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Sakananet, zuntz optiko mankomunatu eskaintza

Ibar guztira zuntz optiko azkarra eramatea du helburu. Lehen fasean Arakil eta Etxarri Aranatz arteko lanak egiten ari dira. Urte akaberarako martxan izanen da. "Bidezko zerbitzua jasoko dute sakandarrek, bidezko prezioekin, parte hartzean oinarrituta"

SASKANA

Sakanan Zuntz Optiko Mankomunatua, Sakananet, hedatuko duen proiektua asteazkenean aurkeztu zuten parte hartzen ari diren udal ordezkariek, Sakanako Mankomunitateko presidenteak, Sakanako Garapen Agentziako kudeatzaileak eta ekimeneko lankide teknologikoa den Guifinet fundazioko ordezkariak. Mank-eko buru David Oroz Alonsok esan zuenez, proiektu horren muinean bi helburu nagusi daude: "batetik, sakandar guztiei hurbileko, kalitatezko eta jasangarria den konexioa eskaintzea. Eta, bestetik, sare mankomunatua ziurtatzea; hau da, multinazionalen eredutik at, herritar guztiak jabe izanen dituen sarea izatea".

Sakananet-en sustatzaile diren udal, SGA eta Guifineteko ordezkariak. SGA

Proiektua sustatu duten ibarreko erakundeek Guifinet telekomunikazio eredu mankomunatuaren aldeko apustua egin dute, "herritarrei Internet jasangarriagoa eta hurbilagoa helarazteko. Konexio azkarra izatea, gaur egun, oinarrizko beharra baita. Zuntz optikoko sare mankomunatuari esker, Sakanak kalitatezko Internet konexioa izanen du, bidezko prezioan, tokiko operadoreen bitartez eta hurbileko ekonomia sustatuz", azaldu zuen Orozek. Mank-eko Telekomunikazio Batzordeko buru Gorka Ovejero Ganboak gaineratu zuenez, "landa eremuan eta herri txikietara iritsiko da proiektua, orain genituen gabeziak konponduz. Honela, goi mailako zuntz azkar zerbitzua izanen dugu, azkenean. Eta, gainera, gu izanen gara zuntz horren jabeak".

Guifinet Fundazioko kide Miguel Angel Irigoienek azpimarratu zuenez, "proiektuaren finantzazioa, mantentzea eta gobernantza era mankomunatuan eginen da: erabiltzaileek eta tokiko instituzioek eginen dute. Horrek esan nahi du sakandarrak izanen direla zerbitzuaren jabeak, tokiko baloreak sustatuz".

Tokiko operadoreen alde

Guifinet fundazioaren helburua da lehen eta bigarren mailako herritarrak sortzen dituen telekomunikazio eredua gainditzea. Fundazioa hainbat eskualdetan ari da lanean, eta, pilatutako eskarmentuarekin, Sakanan proiektua koordinatzeaz eta kudeatzeaz arduratuko da. Betiere helburua zerbitzua izanen da, ez zerbitzuaren diru etekina. Sakandarrek izan ditzaketen zalantza guztiak argitzeko Guifinetek web orrialde bat sortu du: *https://fundacio.guifi.net/sakananet*.

Sakananet-i esker erabiltzaileek erabakiko dute zein operadorerekin kontratatuko dituzten zerbitzuak, zeinen eskaintza gustatzen zaien gehien. Gainera, sarean parte hartzen duen operadorea nahi den guztietan alda daiteke, ez baitago iraunkortasun betebeharrik. Tokiko telekomunikazio operadore eskaintza honakoa da: Abaila, Evel, Sisnet eta Sona. Sakananet-ek 1.000 Mb simetriko segundoko eskainiko ditu, hau da, Gbps simetriko bat. Edozein erabiltzaileren beharrak estaltzen ditu horrek.

Abantailak

Sarea era mankomunatuan antolatzeak eskaintzen dituen abantailak azpimarratu zituzten aurkezpenean. Batetik, "ohiko ereduan, sarearen jabetza operadore bakar baten esku dagoenez, operadore horrek aldi berean zabaldu eta ustiatzen du. Sare mankomunatua, berriz, ondasun komun gisa erabiltzen den azpiegitura da: bertan inbertitu duten eta erabiltzen duten eragile guztiena da". Eta adibidea eman zuten: "larreen edo herri basoen kudeaketarekin gertatzen den bezala, ziurtatzen eta zaintzen duten mekanismo batzuen bidez kudeatzen da".

Bigarren abantaila da sare mankomunatua "irekia, askea eta neutrala izatea. Sare bera operadore askok partekatzen dute, monopolioa saihestuz". Horrekin batera nabarmendu zutenez, "ingurumenaren aldetik jasangarriagoa da, ez baitira azpiegiturak bikoizten, eta kostuak merkatzen dira. Aldi berean, azpiegiturarekin negozioa egitea saihesten da". Azkenik, gaztigatu zutenez, "erabiltzaileek hainbat merkataritza operadoreren artean aukera dezakete".

Proiektuaren sustatzaileek azaldu zutenez, lanak faseka ari dira egiten.

Zuntz optikoa zabaltzeko lanak udan hasi ziren, urte akaberarako lanak despedituko dituzte. Sakananet-ek honako udalerrietan eskainiko du zerbitzua: Arakil, Irurtzun, Irañeta, Uharte Arakil, Arruazu, Lakuntza, Arbizu eta Etxarri Aranatz.

Jendea musukoa jantzita. ARTXIBOA

Bi hilabetetan 34 COVID-19 positibo zenbatu dituzte

Indar gutxiagorekin bada ere, COVID-19 gaitzak gure artean segitzen du. Horregatik, 70 urtetik gorako herritarrak gripearen kontrako txertoarekin batera koronabirusaren kontrakoa jasotzen ari dira. Baita osasun egoera zaurgarria dutenak ere. Bestalde, datuei erreparatuta, irailean Sakanan 22 positibo zenbatu zituzten: Altsasu 15 eta bana Irañetan, Arruazun, Arbizun, Etxarrin, Iturmendin, Urdiainen eta Olatzagutian. Agorrilarekin alderatuta, %88,94 kasu gutxiago. Lastailean, berriz, dozena bat positibo izan ibarrean: Altsasun 5, Arbizun 4, Irurtzunen 2 eta Uharte Arakilen 1. Guztira 2.950 sakandarrek izan dute gaitza, %14,56.

Hamar urte historia haizatzen

Rafael Carasatorre Vidaurre ikerlariak hamarkada bat egin du historiari buruzko 'www.documentanavarra.blogspot.com' bloga elikatzen. Aurreikusitakoen lan erdiak egin dituela jakinarazi du

Alfredo Alvaro Igoa ETXARRI ARANATZ

Garai bateko bizimodua, toki izenak, ekonomia jardunak, pertsonen edo herrien arteko liskarrak, ezkontza kontratuak, ospakizunak, gerren arrastoa, herri lanak, elizen eraikuntza, harrobiak, zergak, otsoak, uharkak... Horretaz guztiaz eta askozaz gehiagoz informazioa irakur daiteke *www.documentanavarra.blogspot.com* blogean, Rafael Carasatorre Vidaurre historialari etxarriarraren historia blogean. Haren bidez Carasatorrek bere ikerketak eta historia agirien transkripzio baliotsuak guztion eskura jartzen ditu, horrela etxarriarrak historiaren zabalkunde lan aparta egiten du.

Rafael Carasatorre Vidaurre, erdian. FUNDACION CULTURA NAVARRA

Lastailaren 20an jakinarazi zuen bere historia zabalkunde lanak hamar urte bete dituela. Denbora tarte horretan blogak 372.000 bisita inguru izan ditu. Carasatorrek berak jakinarazi duenez, "aurreikusitakoaren erdia" ia egina du. Jakinarazpenarekin batera, ikerlari etxarriarrak eskerrak eman dizkie babesa eman eta kritika eraikigarria egin diotenei. Eskerrak eman dizkienen artean Iker Etxarri Carasatorre iloba dago, bloga kudeatzen laguntzeagatik. Eskerrak eman dizkie elkarlanagatik Jose Luis Turrillasi eta Fundación Navarra Culturalgo Alfonso Rinconi, eta aholkuengatik Gerardo Uharte Ilarrazi.

Interneteko atariaren bidez Nafarroa guztiko informazioa zabaltzen ari da Carasatorre. Argitaratu dituen historiako agiri horien artean Sakanari buruzko dokumentazioa oso ugaria da. Jakina denez, Sakana ulertzeko ezinbestekoa den *Barranca Burunda* liburuaren egilea da etxarriarra,1993an argitaratu zuen.

Bibliografia

- *Nuestro latín en expresiones y frases*
- *Etxarri-Aranatz 1900-1940*
- *Constitución o Fueros*
- *Navarra Tridentina*
- *Carrascón*
- *Glosario Navarro desde una perspectiva histórica de Cintruénigo*
- *Cuentos Verdaderos de Etxarri Aranatz*
- *1000 páginas de Latín: Expresiones, Frases. Siglas, Abreviaturas, Numerales y más*
- *Glosario Navarro*
- *Barranca-Burunda*

Elkarlanean argitaratuak

- *Etxarri Aranazko euskara eta Arañaz elkarteko hiztegia* Erdozia eta Ulaiarrekin
- *Burunda, topaleku* Angel Perez Miguelekin

Kamioia zaborrez betea

Altsasu Auzolanean eraikiz-ek auzolana deitu zuen larunbaterako. Deialdiari 70 pertsonek erantzun zioten. Gure Etxea eraikinean 10:00etan elkartu eta handik San Pedro zelaira arteko bideetan barna banatu ziren. Bide bazterrean opatutako zakarrak poltsetan sartu zituzten. Guztien artean jasotakoarekin kamioia bete zuten. Bazkarian 25 izan ziren.

ALTSASU AUZOLANEAN ERAIKIZ

Lastailaren 19ko topaketa

Bularreko minbiziaren nazioarteko egunaren bueltan, 2007tik hainbat emakumezko Olatzagutian elkartzen dira. Aurtengo hitzordua ostiralean izan zen eta 18 izan ziren elkartu zirenak. Pintxo potean aritu ziren. Topaketa eginen zela jakitun, Olatzagutiko Udalak kultur etxea morez argiztatu zuen. Gainera, Saray elkarteko elkartasun azoka egon zen.

SARAY ELKARTEA

Susana Mendinueta Flores eta Oskia Lazkoz Munarriz. UTZITAKOA

Cederna Garalurrek hiru hamarkada bete ditu

Arbizun, Sakanako Garapen Zentroan, du egoitza. Harremanetarako: 'www.cederna.eu/eus/contacto/'

SAKANA

Nafarroako Mendialdearen gizarte eta ekonomia garapena bultzatzea izan da Cederna Garalur elkartearen helburua hasieratik, 1991tik. Horretarako, Mendialdeko eragileekin elkarlanean ari da, eskualdeko herritarren bizi kalitatea hobetuko duten toki garapeneko estrategiak martxan jartzeko, zerbitzu publikoen eta pribatuen sarea sendotzeko, herritarrak landa eremura erakartzeko eta bertan daudenak bertan jarraitzeko. Horretarako, Garalurrek landa eremuak bultzatuko zituen eta lurraldea kohesionatuko zuen garapen estrategia landu du, eta ekimenak gauzatzeko diru funtsak erakarri ditu.

Garalurren Sakanako egoitzan. Oskia Lazkoz Munarrizek eta Susana Mendinueta Floresek lan egiten dute. Sakandarrei hiru kontutan laguntzen diete. Batetik, ekonomia jardueraren bat martxan jarri nahi duten ekintzaileei harrera egin eta laguntza eskaintzen diete. Esaterako, negozio ideia zehazten, dirulaguntzen berri ematen eta tramitazioan laguntzen eta bideragarritasun plana egiten. Bestetik, udalen proiektuak aurrera ateratzeko laguntza ematen dute. Eta, azkenik, Europako Feader funtsarekin eta Nafarroako Gobernuaren diruarekin osatutako Landa Garapenerako Programa dago. Hartara egitasmoak aurkeztuko dituztenei dirulaguntza eskaera egiten laguntzen diete.

Hiru hamarkada

Elkarteak bere 30. urteurrena Urraulgoitiko Santa Fe ostatuan ospatu zuen. Bertan elkarteko garai bateko eta egungo talde teknikoa, Nafarroako Gobernuko eta udaletako ordezkariak eta iraganean eta gaur egun Garalurrekin lankidetzan ari diren erakunde eta enpresetako ordezkariak izan ziren. Antolatzaileek topaketa "iraganeko proiektuak gogoratzeko, iraganeko esperientziak partekatzeko, Garalurren egungo eta geroko proiektuei buruz hitz egiteko eta landa eremuak dituen errenkei buruz hausnartzeko abagunea" bilakatu nahi izan zuten.

Garalurreko ordezkariek elkarteak 1991n sortu zenetik egindako bide luzea ekarri zuten gogora. Elkarteko zuzendari kudeatzaile Ibon Mimentza Iralak Garalurrek abian jarritako azken proiektuak azaldu zituen, Nafarroako Mendiaren egungo interesekin bat datozenak, besteak beste: energia aholkularitzako zerbitzua; Mendialdea Elikadura edo Toptopa, tokiko landa merkataritzarako *market place* esklusiboa. "Hori guztia, betiere, gure lurraldearekin lankidetza estuan landua. Hortik dator elkartearen urteurrenaren leloa: 30 urte zurekin".

30 urteko datuak

Tokiko 1.000 proiektu kudeatu ditu, edo kudeatzen lagundu. Azken 7 urteotan 768 enpresa eta 900 lanpostu sortzen lagundu du.

San Martin festak, ostegunean bueltan izanen dira

COVID-19 gaitzak eragindako urte bateko etenaren ondoren, bueltan dira San Martinak. Irurtzungo Kultur Kontseiluak azaroaren 11tik 14ra arteko egitaraua prestatu du. San Martin egunean, ostegunean, egitaraua haurrendako jolasek zabalduko dute. 11:30etik 14:00etara egurrezko, punteriazko eta bestelako jolasekin gozatzeko aukera izanen da plazan (euria egiten badu, pilotalekuan). Urtero moduan Iratxo elkarteak mus txapelketa hartuko du 16:30etik aurrera, ordu erdi lehenago itxiko da izen ematea. 17:30ean 2019an eta 2020an jaiotakoei zapia eta erraldoien ipuina banatuko zaie, plazan. 18:00etan, berriz, diskofesta antolatuko du Xaiborrek, plazan. Musikarekin batera, 18:30ean, haurrendako txokolate jana izanen da (zeliakoendako egokia). Eta egitaraua zezensuzkoak despedituko du 19:30ean, plazan.

PIKUXAR EUSKAL TXOKOA

Ibilaldi Beltza aterpean

Euri arriskuagatik Pikuxar euskal txokoak iganderako antolatutako Ibilaldi Beltza eskolan egin zen mendian beharrean. Hamar txandatan banatuta, 280 pertsonak egin zuten bidea ikastetxe ilunean barna. Ibilbidean bost aktore eta mitologia pertsonaiekin topo egin zuten. Bezperan ehun haurrek maskara eta kuia tailerrean parte hartu zuten.

UTZITAKOA

Gau Beltza Bakaikun

Estreinakoz Gau Beltza ospatu zuten Bakaikun domekan. Lehenik haurrek kuiak hustu eta forma emateko tailerra egin zuten herriaren etxean. Lan horiek despeditu ondoren, txiki eta handiek trapu zaharrak jantzi, aurpegia zapiz estali eta kalera atera ziren. Ilunpean zeuden Bakaikuko kaleetan barna kalejiran ibili ziren.

Izan, Ezagutu, Egin eta Elkarrekin bizi taldeko partaideak. UTZITAKOA

Ikastolen sena ondare gisa ikusita

Nafarroako Ikastolen mugimenduak euskara irakas hizkuntza izanik, murgiltze ereduaren baitan, praktika pedagogiko berritzaileak eta kulturalak ezartzean eta garatzean izan duen zeregina jasotzen duen dokumentala aurkeztu dute

SAKANA

Nafarroako Ikastolen Elkarteak (NIE) *Izan, Ezagutu, Egin eta Elkarrekin bizi* dokumentala aurkeztu zuen lastailaren 28an. NIEko zuzendari Josu Reparaz Leitzak azaldu zuenez, "dokumentala ikastolek beraien sorreratik gaur egun arte garatutako euskal hezkuntzaren materiagabeko ondarearen bilduma gisa sortu da, ikastola osatzen duten komunitateetako pertsonek, profesionalek aurrera eraman dituzten praktikak, ezagutzak eta lotutako espazioak, kultura ondaretzat onartuz". Reparazek gaineratu zuenez, "materia gabeko ondare hori, hasierako irakasle haiengandik hasita, belaunaldiz belaunaldi helarazi da, eta uneoro birsortzen joan da, etengabe, gizartearen premien elkarreraginez".

Zuzendariak azaldu zuenez, dokumentalaren bidez "murgiltze irakaskuntza eredu horren jatorria eta bilakaera aztertu eta gizarteratu nahi da, hezkuntza mugimenduaren oinarri izan ziren, eta egun diren, ideia pedagogikoak sortu eta bultzatzen dituzten pertsonen lekukotasunetatik abiatuta. Ideia pedagogiko berri eta esperimentalek ikastolak eskola moderno eta hurbileko kultura inguruneari irekitako eskolak bilakatu zituzten, hainbat garaietako gizarte eta historia aldaketetara egokituak".

Dokumentalean parte hartzen dutenen artean Andra Mari ikastolako Itziar Aldaz Zufiaurre eta Iñigo Aritza ikastolako Jone Areta Urreztarazu daude. Aldaz ikastoletan orientazio alorrean egiten den lanaz ari da, eta Areta, berriz, Haur Hezkuntzan haurra erdigunean jartzen dela eta guztia horri begira egiten dela azaldu du, besteak beste. Reparazek azaldu zuenez, dokumentalean jasotako testigantzek "ikastolaren identitate, ikastolarekiko pertenentzia eta jarraipen sentimendu sakona adierazten dute, giza eta gizarte balio sendoetan oinarrituta".

Ikus-entzunezkoa

Ikastolen hezkuntza eta kultura egitasmoarekin uztartutako 13 gairen inguruan aritu dira parte hartzaileak dokumentalean: historia testuingurua, ikaslea ardatza izatea; euskararen berreskurapena; herritik eta herriarendako sortuak izatea ikastolak; komunitate biziak, familien papera; kooperatibismoa: pedagogia praktika berritzaileak; ikas materialak sortzea; teknologia berriak; irakasleen prestakuntza; hizkuntzen trataera; Europarekin harremana eta euskarazko hezkuntza ereduan duen papera.

Horiek guztiak lau zutabetan antolatu dituzte: *Izaten Jakin*, ikasleak bere identitate eta autoritate pertsonal garatzea; *Ezagutzen Jakin*, ikasleak bere ezagutza eraiki behar du, dituen aurrezagutzetatik abiatuta eta iturri ezberdinak kontuan hartuta; *Egiten Jakin*, ikasleak ikastolak jasotzen dituen ezagutzak, prozedurak bere bizitzako hainbat eremuetan erabiltzeko gaitasuna izatea eta, azkenik, *Elkarrekin Bizitzen Jakin*, ikastolak benetako komunitateak dira, anitzak, hainbat ideologia eta kredo dituzten pertsonez osatuak eta elkarrekin bizitzen jakitea landu behar den gaia da, giza balio sendoetan oinarrituta, ikastolek kooperatibismoan aurkitu zuten beraiei egokien lotzen zitzaion formula juridikoa, auzolana aldarrikatuz.

Reparazek *Delors* txostenari erreparatu zion: "XXI. menderako hezkuntza erronkak jasotzen ditu, eta eskolak bizitzarako eskolak izatera gonbidatzen ditu, non ikasleek: izaten ikasi, ezagutzen ikasi, egiten ikasi eta lagunartean bizitzen ikasiko duten. Denboraren perspektibarekin, eta testigantzek garbi utzi duten bezala, ikastolek beti helburu horiekin egin dute lan".

Adavanekoek Parlamentuko presidenteari idatzia eman zioten. ADAVAN

Amiantoaren konpentsazio funtsa indarrean nahi dute

Nafarroako Parlamentuari eskatu diote Espainiako Gobernuari exijitzeko konpentsazio funtsa desblokeatzeko

SAKANA

Nafarroako Amiantoaren Biktimen Laguntza eta Defentsa Elkarteak, Adavanek deituta, Nafarroako Parlamentuaren parean kontzentrazioa egin zen atzo. Estatuko gainontzeko parlamentuen parean ere bilkurak egin zituzten amiantoko biktimen elkartearen federazioak, Fedavicak deituta. Guztietan lelo bera zabaldu zuten: *Amiantoak hiltzen du. Konpentsazio funtsa orain!*

Amiantoaren Biktimendako Konpentsazio Funtsaren Lege Proiektua onartu zen apirilaren 13an. Adavaneko kideek atzo salatu zutenez, "Espainiako Gobernuak, inolako justifikaziorik gabe, proiektua blokeatuta du. Izan ere, batzordearen hainbat luzapen egin ditu, horrela Legea onartzea eragotziz". Gogorarazi zutenez, "Lege Proiektua Eusko Legebiltzarrean 2017an aurkeztu zen eta hauteskunde deialdiengatik eta beste hainbatetan atzeratu da". Adavaneko kideen kezka da "konpentsazio funtsa Estatuko Aurrekontuekin batera orain onartzen ez bada, finantzaziorik gabe eta bazterrean geldituko dela". Halako funtsak Europako hainbat herrialdeetan daudela gogorarazi zuten.

Nafarroako agintariendako eskaera ere badute Adavaneko kideek: herrialdean Amiantoa Kentzeko Plan Zuzendaria martxan jartzea. "Plan ona da, bere garaian Estatuan aitzindaria izan zena, eta aurreko legegintzaldian parlamentuko talde guztiek aho batez onartu zutena".

Kalbario bikoitza

Adavaneko kideek nabarmendu dutenez, amiantoaren biktimek eta haien familiek oinaze aldi bikoitza dute. Batetik, "gaitzak garatu dituzte enpresen arduragabekeriagatik, enpresek bere erabilera lehenago ez debekatzeagatik, segurtasun neurrien faltagatik eta administrazio publikoen geldotasunagatik". Bestetik, "kalbarioa da biktimek beraien eskubideak aldarrikatu behar izatea, laneko gaixotasun gisa hartzeko tramitazioa, bizi kalitatearen okertzea. Izan ere, enpresek eta administrazioek prozesuak urtetan neurrigabe luzatzen dituzte. Ondorioz, biktima asko prozesuak bukatu aurretik hiltzen dira".

Amiantoa

Asbestoa edo uralita asko erabili zen XX. mendean industrian, garraioan eta etxeetan. Toxikotasun handiko minerala da. Arroka naturaletatik ateratzean zuntz mikroskopikoetan desegiteko joera du, eta arnastu edo irensten badira, biriketan edo beste erraietan iltzatu daitezke, gaitzak eraginez: minbizia, asbestosia, perikardioa, pleura mesotelioma…

1936ko erailak eta errepresaliatuak gogoan

Lastailaren 28an 85 urte bete ziren Silverio Astiz Lakuntza, Uharte Arakilgo alkatea eta haren semea, Silverio Astiz Ezkurdia, Iruñeko kartzelatik atera eta kolpe frankista eman zutenek hil zituztela. Horregatik, oroimen ekitaldia antolatu zuten igandean

UHARTE ARAKIL

Uharte Arakilgo Udalak eta Uharte Arakil 80 urte memoria galtzen taldeak antolatuta, Frankismoak eraildako eta errepresaliatutakoak gogoan izan zituzten igande eguerdian. Herriko seme-alabak plazan dagoen oroigarrian antolatzaileen izenean Txomin Uharte Baleztenak eta senideen izenean Hermogenes Goñi Martirenak, Victor Martiarena Alegriaren senideak, hartu zuten hitza.

Bai udala bai taldea falta diren ubertearrak herrira ekartzeko lanean jarraituko dutela gaztigatu zuen Uhartek. "Momentuz Victor Martiarena Alegriarekin lortu dugu. Silverio Astiz Lakuntza alkatea zena eta haren seme Silverio Astiz Ezkurdiaren gorpuzkiak berreskuratzea falta zaigu". Horregatik, Uhartek eta Goñik "hor nonbait daudela ez ahazteko" eskatu zuten eta astizdarrak opatzeko lanean segitu beharra dagoela nabarmendu zuten. Eskaera, zuzenean, Nafarroako Gobernuari egin zioten. Aldi berean eskerrak eman zuten orain arte egindako lanak ubertear bat bueltan herrira ekarri duelako. Nafarroan dauden eraildako guztien gorpuzki guztiak opatu arte ahalegina egitea eskatu zuten. Eraildako eta errepresaliatutako ubertearrendako justizia, erreparazioa eta oroimena aldarrikatu zituzten. Eraildako eta errepresaliatutako ubertear guztien omenez lore eskaintza egin eta minutu bateko isilunea gorde zuten.

Bost urte

1936ko estatu kolpearen ondoren eraildako hiru ubertearrak herriko seme kuttun izendatu zituen Uharte Arakilgo Udalak 2016an. Urte hartan bertan San Joan plaza zena eraldatu eta errepresaliatu guztien omenez Herriko seme-alaben plaza izena eman zioten. Ordutik han dago Miren Ustarroz eskultore ubertearraren oroigarria, eta haren oinean Castillo Suarez idazleak Silverio Astiz Ezkurdiaren testuetan oinarritutako hitzak. Iker Uribek plaza zeharkatzen duen murala egin zuen. Urte hartatik udalak eta taldeak elkarlanean lastailaren 28tik gertu dagoen asteburu batean memoria ekitaldia antolatzen dute urtero.

Omenaldian hainbat ubertear elkartu ziren. UHARTE ARAKIL 80 URTE MEMORIA GALTZEN

OMENDUENDAKO JUSTIZIA, ERREPARAZIOA ETA OROIMENA ESKATU ZITUZTEN

Eraildakoak

Silverio Astiz Lakuntza 1877ko garagartzaroaren 20an jaio zen. Ramon eta Gregoriaren semea, Nicolasa Ezkurdia Garziandiarekin ezkondua zegoen eta seme bat zuen. Nekazaria eta UGTko kidea, herriko alkatea zen, 59 urte zituela, atxilotu eta espetxeratu zutenean. Silverio eta Nicolasaren semea, Silverio Astiz Ezkurdia, 1915eko garagarrilaren 20an jaio zen. UGTko kidea zelako atxilotu eta espetxeratu zuten. 21 urte zituela hil zuten, aitarekin batera, 1936ko lastailaren 28an fusilatu zituzten, ustez Iberoko Zurbao dermioan, baina han opatutako gorpuzkien artean ez zituzten identifikatu.

Victor Martirena Irañeta UGTko kidea zen. 26 urte zituela atxilotu eta espetxeratu egin zuten. Iberon erailtzeko atera zuten espetxetik. Han opatu zuten 2015eko abenduan, eta 2017ko azaroaren 4an Uharte Arakilgo hilerrian lur eman zioten.

KOLABORAZIOA

(G)Ipuzkoa (II)

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Barrena Osoro historialariak, hasiera batean esaten du koronimoaren lehen osagaia, "Ipu", izen nagusia dela, baina, ondoren, gipuzkoarrak eta bizkaitarrak elkarren artean zirikatzeko baliatzen dituzten horietakoa dirudien aipamena egin zuen, egia bada ere propio zehaztu zuela proposatzen zuen osagaiaren esanahia, bestelakoan zirikatze horretarako aukera eman zezakeela berak ere ikusi zuelako seguru asko:

"El vocabulario en que se encuentra una raíz comparable a 'Ipu' es muy limitado, y se halla en palabras tales como 'ipuin' -cuento- , 'ipurdi' -trasero-, o 'ipar' -norte-, que significan literalmente 'lo del pasado', bien en sentido temporal o bien en el espacial. No es difícil que por su raiz y por el contenido cultural que caracteriza a sus componentes hasta mediada la época medieval, 'iputza' fuera incluída en ese grupo como la expresión de 'lo del pasado' cultural, 'lo retrasado'. Desde un punto de vista histórico, este retraso y en esta época, vuelve a traducirnos una indefinición de los derechos de atribución del territorio que, por ende, la acusación de 'retrasados' hecha a los guipuzcoanos podría implicar la negación o puesta en entredicho de tal derecho".

Eta ildo beretik jotzen du, atzerapenarenetik esan nahi da, ondoren, lehen atalaren amaieran ematen duen azalpenean:

"En el carácter despectivo que rodeará al calificativo 'iputza' podría estar incluso condensada una conflictividad surgida por el encuentro en planos desiguales, de dos sistemas socio-económicos: el gentilicio, organizando a la sociedad de base ganadera y que, en consecuencia, no ha definido su derecho de atribución del espacio, y el feudal, disponiendo de la autoridad suprema sobre el espacio, por haberse asentado ya sobre sus hombres a través de los jefes de la organización gentilicia".

"Ipu", izen nagusi edo arrunt, bertatik eratortzen du, orduan, Barrena Osoro historialariak Gipuzkoa koronimoa. Eta ikusi dugu, gainera, zertan oinarritu den eratorpen hori egiteko, inguruko lurralde edo eremuekiko maila kultural ezberdina, "atzeratua". Baina, toponimoek, are gehiago aspaldikoek, leku edo eremu bateko egoera zehatzak beharrean, tokiak gehienetan eta gertaerak gutxienetan ere, deskribatu edo kontatzen dituzte.

Eta nik, eremuaren deskribapena hartuko dut oinarri gisa, koronimoaren jatorria edo etimologiari buruzko nire proposamena azaltzeko orduan.

Barrena Osorok etimotako hartu duen 'Ipu' hori ez da gaur egun bederen hitz erabilia, ez bada Bergarako zenbaiten aldetik (Bergaran bertan izen ofiziala ere erabiltzen baita) "bare" giza gorputzeko organoa adierazteko (*Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa*, 2148. 141 emaitzetatik bakarra gainera). Gauza bera esan dezakegu historialariak jatorrikotako agertzen dituen beste bi aldagaiei buruz, "gipu" eta "lipu".

Baztertu eginen nuke nik historialari eibartarraren proposamena eta aspaldiko garaiko eremuaren deskribatzaile izan daitekeen etimoa proposatuko dut, *ipuru*.

Honela definitzen du Euskaltzaindiaren Hiztegiak aipatu berri dudan izena: *"iz. Nekostaren familiako zuhaixka, hosto-zorrotza, oso urrintsuak diren fruitu beltz edo moreak ematen dituena (Juniperus communis)."*

Zuhaitz edo zuhaixkaren izena, beraz, koronimoaren jatorrian egon daitekeen etimoa. Egia da gaur egun ez dela Gipuzkoaren eremuan gehien ikusten den landare mota, baina dudarik gabe asko aldatu da lurralde honetako landaretza azken zortzi-hamar mendeetan. Hala ere, EHHAn izen hauxe hasierako bokala irekirik duela, 'epuru', ageri da Ataunen eta Orexan, egun oraindik landare mota hau ezaguna duten tokietan. *Arabaota* Legazpian eta Leintz-Gatzagan, eta *Araota* Eibarren, Gipuzkoako gainerako eremuetan ez da EHHAn ipururen ordeko beste izenik ageri.

Bestalde, harrigarria da Eibarko kasua, non guztiok ezagutzen dugun, azken urteotan bereziki futbola dela eta, 'Ipurua' Eibarko futbol zelaia eta bertako toponimoa, baina egun EHHAn *arabaota* ageri da. Bistan da, *Ipurua* leku izen hori garai bateko bertako landaretzatik datorkiola.

Baina, nola izanen zen etimo honen eta gainerako osagaien bilakabidea *Ipuzkoa* izen nagusira iristeko? Ondorengoa da nire proposamena, koronimoaren osagai guztiak azalduz hasita eta bilakabidearekin jarraituz:

- *Ipuru* + *-tza* + *-ko* + *-a*
- *Ipuu* + *tza* + *-ko -a* (dardarkariaren galera bokal berdinen artean)
- *Ipu* + *-tz* + *-ko* + *-a* (bokal berdinen murrizketa, sinkopa)
- *Ipuzkoa*
- *(G)ipuzkoa* (g-protesiarekin hasieran *galtzeiru* -altzairu-, *guatze* -ohatze-, *guartu* -ohartu- bezala, esate baterako, Aranatzen)

Atzizki eratorleak kolektibitatea edo ugaritasuna adierazten du eta horrela izan zitekeen aurreko mendeetako paisaia Gipuzkoakoa, ipuruaren ugaritasunean oinarritua. Eta esaten ari naizen hauxe azpimarratzera dator, Gipuzkoako armarria bera. Gipuzkoako Batzar Nagusiak web orrian, ondorengoa esaten da Gipuzkoako egungo armarriari buruz: *"Gipuzkoako armarria aldatzetik eratorritako azken deskribapena, Oiartzunen 1979ko uztailaren 2an ospatutako Batzar Nagusiaren edo Ohikoaren bilkuran onartutakoa, ondokoa izan zen: Kantoi bakarreko armarria, urrezko zelai baten gainean* ***hiru hagin berde*** *dituena, bat erdian eta beste biak alde bakoitzean, proportzio berean, eta zuhaitz horien oinetan urezko olatuak, zilarrezkoak eta urdinak, eta armarri hori besarkatuz basagizon bana alde bakoitzean eta behean ondoko legenda: 'Fidelissima Bardulia nunquam superata'."*

Haginak direla Gipuzkoako armarriko zuhaitzak esaten du Batzar Nagusietako azalpenak, irudiei ganoraz begiratzen bazaie bestelakoa ikusten bada ere. Armarriaren irudi guztietan ageri zaizkigu zuhaitzak eta ia guztietan esan daiteke ez dela asmakizuna bertan agertzen direnak haginak ez, baizik eta ipuruak direla ondorioztatzea. Hona jarraian Batzar Nagusietako harmarria bere osagaiekin eta Wikipediatik hartutako ipuruaren eta haginaren irudiak (hauexek hitzak baino baliagarriago, bistan da):

Gipuzkoako armarria. WIKIPEDIA

Juniperus communis - Ipar ipurua. WIKIPEDIA

Taxus baccata - Hagin arrunta. WIKIPEDIA

DUELA 25 URTE...

Obretako makinak elizan

Eliza berotzeko galdara ikatzez elikatzen zen, baina hondatu eta parrokiak aldatzea erabaki zuen. Haren ordez gasoliozkoa jarriko zen eta tenplua airezko berogailu sistema baten bidez berotzea zen asmoa. Horretarako, elizako zoruan zuloak egin zituzten, airea botako zuen sistema han jartzeko. Lanek zazpi milioi pezetako (42.070,85 euro) aurrekontua zuten eta horri aurre egiteko parrokiak diru bilketa egin behar izan zuen. Lanak iraun bitartean elizkizunak Altsasuko Otadiako ermitan egin ziren.

Hamaika odol emaileri aitortza egin zieten

2019 eta 2020 urteetan 50, 100 edota 150 odol emate egitera iritsi ziren 395 emaileri aitortza egin zien Adonak. Nafarroako elkartetik odol emaile egitera gonbidatu dituzte sakandarrak

SAKANA

Nafarroako Odol emaileen Elkarteak, Adonak, odol emaile guztien ezinbesteko lana aitortzeko ekitaldia antolatu zuen Iruñean igandean. Adonako presidente Anton Zubasti Madozek esan zuenez, ekitaldian zirenak "ematearen arima" ziren. Elkarteko buruak odol emateak dituen balioak nabarmendu zituen: elkartasuna, altruismoa eta anonimotasuna. "Emaile bakoitzaren atzean konpromiso historia handi bana dago, ezagutzen ez dituzten, baina beharra dutela dakiten pertsonei ematen diete. Odol emaile izatea bizi jarrera bat" da.

Odol emaileak Baluartera sartzeko ilaran. ADONA

Emaile egiteko pausoak

Herrietara etortzen den odol emaileen autobusera joan daiteke. Sakanako hurrengo hitzorduak honakoak dira: Olatzagutian, abenduaren 21ean, 17:00etatik 20:30era, eta Altsasun abenduaren 28, 29 eta 30ean, 17:00etatik 20:30era eta abenduaren 31n, 09:30etik 13:00etara. Bestela, odol bankura joan daiteke, Iruñeko ospitale guneko larrialdien egoitzaren parean dagoen etxea da.

Hiru pauso eman behar dira. Lehenengo bisitan sendagile batek odol emailearen eta bere historia medikoaren inguruko datuak jasotzen ditu. Odol emaile izateko egokia bada, baimen informatuaren orria ematen zaio. Horren ondoren, hemoglobina proba egiten zaio emaileari, hatz batean ziztadatxo bat eginda eta, dena ondo badago, emaile zenbaki bat ematen zaio. Azkenik, odola ateratzeko gelan tentsioa begiratu eta odola ateratzen zaio emaileari. Poltsa batean sartzen da odola. Bukatzeko suspertze gelara joaten da emailea. Ongi dagoela ziurtatu ondoren jateko eta edateko zerbait ematen diote.

Omenduak

150 emate baino gehiago

- Norberto Mutiloa Martirena, Irurtzun.

100 emate baino gehiago

- Antonio Yeregui Araña, Arbizu.

50 emate baino gehiago

- Manuel Azakargorta Agirre, Olatzagutia.
- Jesus Galarza Zelaia, Altsasu.
- Xabier Goikoetxea-Ziordia Urrestarazu, Bakaiku.
- Jose Manuel Jaka Artieda, Etxarri Aranatz.
- Javier Loban Carasatorre, Etxarri Aranatz.
- Jesus Morcillo Larraza, Altsasu.
- Juan Carlos Pinto Ondarra, Olatzagutia.
- Jose Miguel Razkin Iribarren, altsasuarra.
- Miguel Angel Vicente Escaño, Olatzagutia.

ASKE ETA BERDINEN
EUSKAL HERRIA

Lortu arte!

Manifestazio Nazionala

Azaroak 20 · Bilbo
17:30 · La Casilla

ehbildu

Udal ordezkariak Irurtzunen azalpenak entzuten. NAFAR GOBERNUA

Udalek 7,7 milioi euro jasoko dituzte 2022an

Beraien funtzionamendua eta herritarrei ematen dizkieten zerbitzuak finantzatzeko izanen da foru gobernuak emandako dirua. Aurreikuspenen arabera aurten baino 909.141 euro gehiago jasoko dute udalek, %13,27 hazkundea

SAKANA

Nafarroako Gobernua barrutik eta kanpotik babesten duten alderdiek udal finantzaketa berria adostu zuten joan den astean. Iruñea salbu, Nafarroako gainontzeko udalerriendako diru ekarpena handitu eginen da finantzaketa eredu berriarekin. Foru administrazioko kideen iritziz, "udalen finantzaketa eredu berriak, bidezkoagoa, solidarioagoa eta nahikoagoa da". Nafarroako Gobernuko Toki Administrazio eta Despopulazioko zuzendari nagusia den Jesus Maria Rodriguez Gomezek eta Ekonomiaren Kudeaketa eta Lankidetza zerbitzuko Javier Zia Aldaba zuzendariak udalen finantzaketa ereduaren berri eman zieten Leitzaldeko eta Sakanako alkateei Irurtzungo kultur etxean asteazkenean.

Rodriguezek azaldu zuenez, eredu berriak "7.759.050 eurora igoko du heldu den urtean Sakanako udalei emandako dirua, haien funtzionamendua eta herritarrei ematen dizkieten zerbitzuak finantzatzeko, aurten baino 909.141 euro gehiago (%13,27)". Ibarreko bataz besteko horren gainetik zazpi udalerri daude: Arruazu %28,32 gehiago, Lakuntza %21,65, Etxarri Aranatz %20,49, Irañeta %19,54, Uharte Arakil %18,05, Arbizu %17,17 eta Irurtzun %13,99. Sakanako bataz besteko ekarpenaren azpitik, berriz, zazpi udalerri daude: Urdiain %12,75 gehiago, Iturmendi %12,47, Altsasu %11,78, Bakaiku %8,75, Ziordia %8,59, Olatzagutia %7,33 eta Arakil %6,29, Eta joan den urteko kopuru berarekin geldituko da Ergoienako Udala. Udalerri bakoitzari dagozkion diru kopuruak behin-behinekoak dira, aldagaiak eguneratu egin beharko baitira abenduaren 31n. Gainera, udalei konpentsazioa eman beharko zaie Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren diru bilketa galtzeagatik.

Udalen finantza eredu berriko ekarpenak

Udalerria	2021eko finantziazioa	2022ko aurreikuspena	Aldea	
			Kopurua	Ehunekoa
Altsasu	2.423.316	2.708.844	285.528	11,78
Arakil	368.150	391.321	23.171	6,29
Arbizu	378.749	443.769	65.019	17,17
Arruazu	44.786	57.468	12.682	28,32
Bakaiku	132.071	143.627	11.556	8,75
Ergoiena	188.277	188.277	0	0,00
Etxarri A.	735.862	886.648	150.785	20,49
Irañeta	63.609	76.037	12.428	19,54
Irurtzun	839.738	957.235	117.498	13,99
Iturmendi	168.942	190.002	21.060	12,47
Lakuntza	387.409	471.268	83.860	21,65
Olatzagutia	482.348	517.719	35.371	7,33
Uharte Ar.	274.277	323.776	49.499	18,05
Urdiain	229.739	259.024	29.285	12,75
Ziordia	132.636	144.035	11.399	8,59
Sakana	**6.849.909**	**7.759.050**	**909.141**	**13,27**

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Aurki aurkeztuko dute Sakana KudeaGo aplikazioa. Haren bidez mugikortasunarekin Sakanan lotura duen guztia izanen da eskura. Baita autoa partekatzeko aukera ere. Aplikazioa garatzen Patxi Miranda Fernandez ari da, Dinabiden ari da hortan.

Hasteko, zer da Sakana KudeaGo?

Mugikortasun plataforma bat da. Han ikusten dira Sakanako mugikortasun zerbitzu guztiak, esaterako: autobus eta tren ordutegiak eta eguneko maiztasunak, taxilarien telefonoak eta haien geltokia eta bizikleta eta ibilgailu alokairu enpresak. Horretaz aparte, sakandarren artean autoa partekatzeko aukera eskainiko du. Baina tartean ez da dirurik egonen.

Azken horri mugikortasun kooperatiboa deitzen zaio, ezta?

Hori da. Sakana KudeaGO kolaborazio plataforma da, ez dago komisiorik. Beste plataforma batzuetan autoa partekatzeagatik plataformek etekin bat lortzen dute. Honekin ez. Hemen helburua da bizilagunen artean autoa partekatzea. Landa eremuan denok egunero erabiltzen dugu autoa, autoarekin gora eta behera gabiltza etengabe. Nahi duguna da bidaia horiek partekatzea. Autoetan pertsona bakarra joan beharrean bat baino gehiago izatea.

Klima larrialdiarekin mugikortasun ereduez asko hizketatzen ari dira. Autoa partekatzearena beharrezko ikusten den helburu bat da?

Basaburuan bizi naiz. Herrian eta ondoko herrietan autoa partekatzeko Whatsapp talde bat sortu nuen 2004an. Zazpi urte hauetan autoa partekatzeko 4.000 eskaera baino gehiago egin dira, eta 3.200 gauzatu dira. Kontuak egiten datu nabarmenena izan zen atmosferara 14.700 kilo CO^2 ez zirela isuri. Hainbat bidai daude, autoa partekatzen baditugu klima aldaketari aurre eginen diogula. Autoan etengabe gaude eta urtean isurtzen den CO^2 kopurua kristorena da. Hori murrizteak klimari on eginen dio.

Sakandarren arteko harremanak estutzea izan daiteke beste onura bat, ezta?

Bai. Azken finean, KudeaGOk sakandar guztiak harremanetan jartzen ditu. Autoa partekatzeko momentuan ibarreko herri guztiak sartuta egonen dira. Eta bakoitzak erabakiko du zein herrietako jakinarazpenak jaso nahi dituen. Esaterako, altsasuarrak Gipuzkoa edo Araba aldera gehiago begira daude. Eta irurtzundar batek autoa partekatzeko jakinarazpena bidaltzen badu, altsasuar batendako agian bere mugikorrean zarata besterik ez da. Azkenean, bakoitzak bere neurriko aplikazioa sortuko du. Aukeratzen duen herriekin eta pertsonekin partekatuko du autoa. Erabiltzaileak blokeatu daitezke ere.

Nola funtzionatzen du aplikazioak?

Android eta iOS sistema eragileekin erabilgarria da. Google Play eta Apple Storetik dohainik deskargatuko da. Horren ondoren, lehendabizi, galdetuko dizu zein hizkuntzatan nahi duzun aplikazioa: euskaraz edo gaztelaniaz. Nik euskaraz baldin badut eta eskaera bidaltzen badut, eta zuk gaztelaniaz baduzu, zuri eskaera gaztelaniaz iritsiko zaizu. Eta aldrebes.

Menu bat du, eta hartan Sakanako garraio zerbitzuen berri ematen du: autobusa, trena, bizikletak eta autoak alokatzeko aukerak. Beste atal batek gertakarien berri emateko balio du, esate baterako: behiek ihes egin dute Irañetan, edo halako errepidea moztuta dago. Autoa partekatzeko atalaren bidez eskaera bidaltzen da. Beste erabiltzaileek jaso, eta ongi etortzen bazaie, txat pribatu baten bidez hitzordua jarriko dute, ibilbide hori partekatzeko.

Sakana KudeaGO aplikazioa dagoeneko erabilgarri dago?

Momentuz ez. Aplikazioa elikatzeko, orain udalei datuak eskatzen ari gara. Jasotzean sartuko ditugu. Segidan hasiko da autoak partekatzeko aukera. Sakana KudeaGo aplikazioa, ziurrenik, hilabete honetan martxan jarriko dugu. Oraindik ez daude lotuta, baina Sakanan barna aurkezpenak eginen ditugu. Orduan deskargatzeko aukera egonen da.

Bakarren batek esanen du: beste aplikazio bat? Zergatik deskargatu beharko luke?

Mugikortasunean kristoren aldaketa izanen da. Esaterako,

"AUTOA PARTEKATZEA NAHI DUGU, PERTSONA BAKARRA JOAN BEHARREAN GEHIAGO IZATEA"

"Helburua sakandarrek autoa partekatzea da"

PATXI MIRANDA FERNANDEZ KUDEA SERVICIOS ENPRESAKO BURUA

Sakana KudeaGO Mankomunitateak eta Garapen Agentziak martxan jarriko duten zerbitzua da. Telefonorako aplikazioak autoa partekatzeko aukera ere emanen du

Patxi Miranda Fernandezek sortu du Sakana KudeaGO. UTZITAKOA

gasolina edo gasolioaren prezioa pila igoko da. Eredua aldatu behar dugu. Mugikortasunari buruzko ikuspegia eta nola mugitzen garen, biak aldatu behar ditugu. Etengabe autoa erabiltzera oso ohituta gaude, baina gure herrien artean mugitzeko beste modu batzuk badaude. Bestalde, Sakanako mugikortasun zerbitzu guztiak aplikazio batean izatea oso interesgarria da. Eta hortik zuk aukeratu nola mugitu nahi duzun. Urtetan klima eta kutsadura gure lehen erronka izanen dira. Aldaketak egin behar ditugu. Aplikazioa horretan hasteko baliabide bat da.

Oso errotuta dagoen ohitura bat da mugikortasunarena. Dendatik edo tabernatik 100 metrora aparkatzea urruti iruditzen zaigu.

Ohitura hori egon da. Sakanan ere herri batzuk hasi dira oinezkoendako eremuak sortzen, edo ibilgailuak saihesten. Herriak eta hiriak autoari begira egin dira. Nik kontrakoa uste dut: autoa atera behar dugu herri espazioetatik. Autoa poliki-poliki desagertuko da. Nafarroan edo estatuan automobil parkearen %60 beharbada desagertuko da. Hori gertatzeko aldaketak eginen dituzte. Beste kontu bat da legeak nola egiten dituzten landa eremuari begira. Legea izanen da: kutsatzen duenak ordainduko du. Baina landa eremuetan edozer gauza egiteko mugitu beharra dugu. Kasu honetan autoa dugu, askotan bide naturala dena. Aldaketa etortzen da, eta gu ere aldatuko gara.

Nolaz sortu zenuen enpresa?

Landa eremuan bizi naiz, eta landa eremuan bizi garenok egunerokoan zein behar ditugun ikusten dugu. Eta zer egin dezakegun zerbitzuak izateko, beste proiektuak garatzeko ideiak daude. Pauso hori eman eta Kudea Servicios enpresa sortu nuen, mugikortasunean fokua jarrita.

Dinabidek zerikusirik ba al du honetan guztian?

Ni plataforma sortzen hasi nintzen. Cederna-Galaurrek nire proiektuaren berri izan zuen, eta Dinabiderekin harremanetan jarri ninduten, Sakanan sortutako teknologia agentziarekin. Coworker taldean sartu nintzen. Haiek prestakuntza aukerak ematen dizkidate. Negozio eredua beste ikuspegi batetik ikusarazi didate. Eta harremanak, esaterako, Mondragon Unibertsitatearekin, CEINekin… Dinabidek prestakuntza eta Nafarroan egiten ari denaren berri eman eta pertsona eta erakundeekin harremanetan jartzen du.

Dinabideko coworking espazioan lanean segitzen duzu?

Bai. Asteartean Ceinekoak Dinabide ezagutzera bisitan etorri ziren, eta nik han izandako esperientzia azaldu nien.

Sakana KudeaGO proiektu pilotua omen da?

Nafarroako beste herri batzuetan martxan jarri da. Baina Sakanan Mugikortasun Laborategi bat sortu dugu. Nafarroako landa eremuko eskualde industrializatuena izanen da Sakana, eta garraio aukera guztiak daude. Plataforma martxan jarri nahi dugu, hark datu batzuk jasotzen ditu, eta horiekin lan eginen dugu mugikortasunari beste begirada bat emateko. Horrekin batera Sakanan dauden garraio enpresekin lanean hasiko gara. Ibarreko mugikortasun diagnosia eginen da ere, sakandarrak nola mugitzen diren jakiteko. Datu batzuk aterako dira, eta beharrekin batera plataforma aldatzen joanen da. Mugikortasunaren ikuspegitik, pertsonez aparte, paketeen garraioa eta beste enpresa eta faktoreak daude.

Noizko espero duzue emaitzen uzta jasotzea?

Orain diagnosia egiten hasi dira. Sakana KudeaGO plataformak emaitzak emateko masa kritiko bat sortu behar da. Prozesu bat izanen du, ez da epe motza izanen. Ez dakit noiz bukatuko den. Sakanako mugikortasuna horrelakoa dela esateko denbora behar da.

"MUGIKORTASUNARI BURUZKO IKUSPEGIA ETA NOLA MUGITZEN GAREN, BIAK ALDATU BEHAR DITUGU"

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 5

ALTSASU ***Pertsonak gara* programa: *Sólo un metro de distancia* antzezlana.**
19:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU **Gozamenez: show-performance. Estefania de Paz Asin 'La Caprichosa'-ren *Cabaret de antojo* ikuskizuna Jokin gitarra jolearekin.**
22:00etan, Arkangoa kalean.

LARUNBATA 6

IZURDIAGA **Bigarren eskuko eta artisautza azoka. Zozketak, DJ, bermuta...**
10:00etatik aurrera, futbol zelaia.

UHARTE ARAKIL **Poesia errezitala.**
17:00etan, jubilatuen elkartean.

ALTSASU **Sarean euskaraz: 3D inprimagailuak ikastaroa.**
17:00etatik 20:00etara, Intxostiapunta gazte gunean.

ETXARRI ARANATZ **Hodei Magoaren *Ezinezkoaren logika* ikuskizuna.**
17:30ean, kultur etxean.

IRURTZUN **Folk Ametsetan: Gandeia taldearen emanaldia.**
19:00etan, kultur etxean.

LAKUNTZA ***Amua* antzezlanaren emanaldia.**
Sakanako Mank-eko Berdintasun zerbitzuak antolatuta.
19:00etan, kultur etxean.

OLAZTI **Jorge Sánchez abeslariaren *Silvio en mi y… en ti* kontzertua.**
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU **Olatz Salvadorren kontzertua.**
Sakanako Berria lagunak antolatuta.
19:30ean, lortia kultur gunean.

IGANDEA 7

ALTSASU **Aralarko txokoak ezagutzeko Guardetxe - Putxerre ibilbidea eginen du Altsasuko Mendigoizaleak taldeak.**
08:00etan, egoitzan.

ERROTZ **Gazteendako escape room-a.**
Sakanako Gizarte Zerbitzuak antolatuta.
Arratsaldean, kontzejuan.

IRURTZUN **Folk Ametsetan: Amak taldearen kontzertua.**
19:00etan, kultur etxean.

ASTELEHENA 8

ALTSASU **Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.**
12:00etan, udaletxearen aurrean.

ASTEAZKENA 10

ALTSASU **Kafe konpondu.**
Izen ematea: *sakana@cederna.es.*
17:30etik 19:30era, Gure Etxean.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

***El buen patrón* gaurkotasunezko filmaren emanaldia**
Igandea 7: 19:30

***Las leyes de la frontera* gaurkotasunezko filmaren emanaldia**
Osteguna 11: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

***Preparativos para estar juntos un periodo de tiempo desconocido* zineforum filmaren emanaldia**
Igandea 7: 19:30

***Supernova* zineforum filmaren emanaldia**
Osteguna 11: 19:00

EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 5

Min. 4º Max. 8º

Larunbata, 6

Min. 2º Max. 9º

Igandea, 7

Min. 4º Max. 9º

Astelehena, 21

Min. 6º Max. 12º

Bueltan da poesia errezitala

Uharte Arakilgo jubilatuen elkartean izanen da larunbatean, azaroak 6, 17:00etan eta Mercedes Viñuelak, Antonio Morok, David Ruizek eta Blanca Agirrezabalagak parte hartuko dute. Pandemiagatik iaz ezin izan zuten Uharte Arakilgo poesia errezitala egin, baina aurten poesia errezitala antolatu dute. Hala ere, azken orduko gauza izan zen elkartea obretan zegoelako, Agirrezabalagak kontatu duenez, "aurten ere ez nuen egitea pentsatzen" eta horregatik poesia "zaharrak eta zenbait berriak" eskainiko dituzte. Beste nobedade bat da aurten ezinen dutela musikaren laguntza izan, eta nabarmentzekoa da ere Viñuelak 92 urte dituela. Poesien gaiak denetarikoak dira, "nik beti erlijiosoren bat egiten dut, amari eskainitakoa, arbola bati...".

Uharte Arakilgo poesia errezitala. ARTXIBOA

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALGAI

Etxe adosatua salgai: Etxarri Aranazko Aldapasoro auzoan. Interesatuek 664 781 794 tfnora deitu

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Tabernarako zerbitzaria behar da: Asteburuetan eta parranda egunetan lan egiteko. Euskalduna eta aritua. Deitu 948 461 228.

LEHIAKETA

Kameratoia ikus-entzunezko rallya: 18-35 urte bitarteko gazteei zuzendua, gehienez 6 kideko taldeetan parte har daiteke. Erronka? 36 ordutan antolakuntzak egunean bertan emandako gai eta baldintzen araberako laburmetraia sortzea. Sariak: 800 euro irabazlearentzat, 400 euro bigarrren sailkatuarentzat. Izena emateko epea azaroaren 7an amaitzen da.

IKASTAROA

Bikoteka tailerra Iruñean: Liburu ilustratu bat nola pentsatu, idatzi, sekuentziatu, marraztu eta argitaratu daitekeen landuko da lau egun eta erdiko ikastaro trinko honetan, idazle-ilustratzaileak bikoteka jarrita. Idazle eta ilustratzaileek parte hartu dezakete, bakarka zein binaka. Bakarka aurkezten direnei bikotea aurkituko diegu, posible den heinean. Parte hartzaileek ez dute zertan lan argitaraturik izan behar eta aurkezten diren hautagaien artean egile berriak lehenetsiko dira. Parte hartzaileek euskaraz jakin behar dute. Galtzagorri elkarteko bazkide izatea baloratuko da. 2022Ko urtarrilaren 24tik 28ra, Iruñeko Kondestable Jauregian. Izena emateko epea azaroaren 26an amaitzen da. Informazio gehiago *galtzagorri@galtzagorri.eus* emailera idatziz, 943 471 487 tfnoan edo *www.galtzagorri.eus web* orrian.

OHARRAK

Patata operazioa: Azaroaren 17an, igandearekin, Iruñeako Alegria peñak papata operazioa egingo duela jakinarazi du. Urdiain eta Satrustegi artean jakiak biltzen egonen dira igande goizean eta eguerdian. Animatu.

Lakuntzako Udalak kontribuzioa ordaintzeko: Aurtengo bigarren seihilabeteko kontribuzio zerga ordaindu nahi dutenendako eta helbideratuta ez dutenendako aukera izanen da Lakuntzako banketxeetan udalak dituen kontuetan azaroaren 15era arte. Helbideratuta dutenei azaroan kobratuko zaie kontutik.

Etxarri Aranatzko Udalak egoera ahulean dauden ikasleentzako dirulaguntza: Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartu ahal izateko, 2021-2022 ikasturteko neguko jardueretarako, eskabideak aurkezteko epea 2022ko urtarrilaren 20an amaitzen da.

Etxarri Aranazko Udalak entitateendako dirulaguntza deialdia: Kultur, kirol eta jendarte erakundeek eskaerak abenduaren 31ko 14:00ak arte aurkez ditzakete. Ikasturte honetan garatuko dituzten jarduerak dira diruz lagunduko direnak. Oinarriak udalean bertan edo *www.etxarriaranatz.eus* web orrian ikus daitezke.

Etxarri Aranazko Udalak 0-2 urteko haurrek Kattukan eskolaratzeko dirulaguntza: Eskabideak aurkezteko epea 2021eko azaroaren 8an amaituko da.

Nafarroa Oinez lagundu: Lizarrara joan ezin izan zutenek eta Lizarra Ikastola lagundu nahi dutenek horretarako aukera dute "Nafarroa Oinez Fundazioa / 03259" Bizum kontuaren bidez edo *www.nafarroaoinez.eus* web orriaren bidez.

Irurtzungo konpartsa: Erraldoiak dantzatzeko jende premia dago Irurtzunen. Interesa duenak hots egin dezala 690 335 196 (Amalia) telefono zenbakira.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburrak.eus

Nabarmendu zure iragarkia
Modulo handia:
24,20 euro
948 564 275

Nabarmendu zure iragarkia
Modulo txikia:
14,52 euro
948 564 275

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

URTEURRENA

Mikel Arregi Marin

XXXXII. urteurrena

Zure irrifarra, zure alaitasuna
gure artean bizirik.

Zure familia
Lakuntzan, 2021eko azaroaren 11n

JAIOTZAK

- **Oihan Vazquez Muñoz,** urriaren 23an Altsasun
- **Sulamita Dos Santos Vaz,** urriaren 26an Olaztin

HERIOTZAK

- **Justina Ezkutari Mendiola,** urriaren 19an Etxarri Aranatzen
- **Blanca Maria Fernandez Albiztur,** urriaren 28an Altsasun
- **Justo Claver Hervás,** urriaren 28an Altsasun
- **Juana Larraza Ondarra,** urriaren 30ean Bakaikun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU
Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ
Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE tanatorioak
Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

948 19 70 70
@GrupoIrache
GrupoIrache
www.tanatoriosirache.es

1. AUTONOMIKOA GIZON.

10. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Lagun Artea - Peña Azagresa	0-1

SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO 1. MULTZOA

1	Lerinés	19
6	Lagun Artea	11

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

15:30 Aluvion - Lagun Artea *(Cascante)*

Lagun Artea, azkenaren kontra

Peña Azagresaren kontra galdu eta gero, Cascantera puntu bila doa Lagun Artea.

1. AUTONOMIKOA EMAK.

8. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Berriozar - Altsasu	5-1

SAILKAPENA

1. AUTONOMIKOKO EMAK. 2. MULTZOA

1	Mulier	24
10	Altsasu	0

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

12:30 Altsasu - Amigó *(Dantzaleku)*

Altsasu Amigó taldearen kontra

Altsasuk hirugarren den Amigó taldea hartuko du zaila aurreikusten den partidan.

FUTBOL PREFERENTEA

8. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Etxarri Aranatz - Itaroa Huarte B	2-0

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Injerto	20
9	Etxarri Aranatz	12

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

16:00 Ilunberri - Etxarri *(Ilunberri)*

Etxarrik Ilunberri du arerio

Itaroa Huarteri irabazi ondoren animatuta, Ilunberri dute aurkari etxarriarrek.

FUTBOL ERREGIONALA

7. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Iruña B - Altsasu	1-0

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 3. MULTZOA

1	Iruña B	18
5	Altsasu	12

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

15:30 Altsasu - Doneztebe *(Dantzaleku)*

Altsasuk Doneztebe hartuko du

Liderraren kontra galdu ondoren, Doneztebe azkena dute aurkari gorritxoek.

Alberto Ongay, Iosu Bergera, Miguel Beraza (Irurtzun Pilota Klubeko presidentea), Julen Retegi eta Josu Olaetxea. UTZITAKOA

Irurtzun, Euskal Herriko txapel preziatua lortzera

PILOTA Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketa Nazionaleko final handia, Irurtzun eta Lemoaren artekoa, igandean jokatuko da Zumarragako Beloki pilotalekuan, 11:00etan, ia urte eta erdi beranduago eta mundu mailako pandemia bat tarteko

Urtebete eta erdi luze atzeratu den finala jokatuko du Irurtzun Pilota Klubak: VI. Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketa Nazionaleko final handia. Irurtzunek Lemoa izango du aurkari igandean, 11:00etan Zumarragako Beloki pilotalekuan erabakiko den finalean, eta bi klubak oso gogotsu daude.

Hain zuzen ere, joan zen urteko, 2020ko txapelketako finala da etzi erabakiko dena. Iaz, txapelketa martxan zegoen pandemia iritsi eta guztia gelditu zenean. Hain zuzen ere, 2020ko martxoaren 8an Irurtzunek eta Oberenak txapelketako finalerdia jokatu zuten eta Irurtzun martxoaren 29an jokatzekoa zen final handirako sailkatu zen, Oberenari hiru partidak irabazi eta gero. Lau eta Erdikoan Olaetxeak 18 eta 10 irabazi zion Canabali, Buruz Burukoan Retegik 4 tantotan utzi zuen Aldabe eta Binakakoan Ongayk eta Bergerak 22 eta 14 hartu zituzten mendean Mata eta Irurita. Martxoaren 15ean beste finalerdia ziren jokatzekoak Ultzamako Buruzgain eta Lemoa, baina alarma egoera ezarri zen, konfinamendua iritsi zen eta guztia gelditu zen.

Konfinamendua altxatu bezain pronto, antolatzaileak, Pilotabizi Pilotazaleen Elkarteak, Euskal Herriko Kluben Arteko Nazionala despeditzeko data berriak jarri zituen. Horrela, 2020ko urriaren 25ean bigarren finalerdia jokatuko zen (Buruzgainen eta Lemoaren artekoa), eta azaroaren 8an final handia (Irurtzunen eta finalerdiko irabazlearen artekoa). Baina pandemiaren okertzeak neurriak gogortzea ekarri zuen, tartean herrialdeen arteko mugak ixtea, eta egoerak epe motzeko konponbidea ez zuela ikusita, txapelketa 2021era atzeratzea erabaki zuen Pilotabizik. Eta, hain justu ere, urte bat beranduago jokatuko da finala, 2021eko azaroaren 7an. Hasierako finala iazko martxoaren 29an jokatuko zela kontuan hartuta, urte eta erdi luze pasa da.

Maila handiko finala

Irurtzunen eta Lemoaren arteko finala "pilotaren festa handia" izatea nahi du Pilotabizik, eta igandean Zumarragara gerturatzeko deia egin die pilotazaleei. Goi mailako finalak espero dira. Lau eta Erdian, Olaetxeak (Irurtzun) Aitor Etxebarria izango du aurkari. Buruz Buru, Julen Retegi izango da Irurtzungo ordezkaria, eta Aurrekoetxea (Lemoa) du aurrez aurre. Bukatzeko, Alberto Ongay satrustegiarrak eta Iosu Bergera arruazuarrak osatuko dute Irurtzungo bikote sendoa, Lemoako Elezkano I.aren eta Markel Egañaren kontra aritzeko. Kalitate handiko pilotariak dira guztiak, ikuskizun handia eskainiko dutenak. Katedrak hori espero du.

Irurtzunek 2019an Euskal Herriko Kluben Arteko Nazionalean lortutako txapela defendatuko du. Agian horregatik, eta pilotari on eta trebeak dituelako da faborito, baina urriaren 23an jokatutako finalerdian Ultzamako Buruzgain irabazi zuen Lemoa ez da gutxiago. Hortaz, final irekia da, guztiz.

Hamaika Telebistan

Irurtzunen eta Lemoaren arteko finalak ikusmin handia sortu du. Horren isla, Hamaika Telebistak zuzenean eskainiko du, eta PROMECAL kateen bidez ikusteko aukera izanen da baita ere. Finalean pilota sustatzen lan nekaezina egin duten zazpi pilotazale omenduko dituzte: Zumarragako Antonio Elizondo eta Jose Antonio Aldama, Tolosako Aurrera Saiaz taldeko Luis Galarraga eta Andres Aramendi, Zegamako Tartaloetxeko Juan Mari Gereñu, Burlatako Zugarraldeko Felix Miguel eta Amurrioko Jon Guerrero.

Joseba Ezkurdia, nahiko ez lukeen partida jokatzera

PILOTA Lau eta Erdiko hirugarren postua erabakitzeko partidan Peio Etxeberria du aurkari larunbatean Labriten

Joseba Ezkurdia Galarragak jipoi ederra jaso zuen igandean Ogetan, Jokin Altuna Altunak 22 eta 10 irabazi eta Lau eta Erdiko finaletik kanpo utzi zionean. Sasoi ikusgarrian iritsi zen aurrelari arbizuarra finalerdietara, ligaxkako partida guztiak irabazita, jokoz bikain eta txisparekin. Finalerako sailkatzeko sekulako ilusioa zuen, baina kaiolan behetik gora egin zuen Altunak bere asmo guztiak zapuztu zituen. "Berak oso ongi

Joseba Ezkurdia kaiolako kolpe gogorrari buelta ematen ari da. ASPEPELOTA.EUS

Bakaikoak kaiolako bigarren txapela nahi du

PILOTA Joanes Bakaikoa Satrustegik Promozioko Lau eta Erdiko finala jokatuko du igandean Burunda pilotalekuan, Iraitz Zubizarreta Agirreren kontra. Finala Altsasun jokatzeagatik "sekulako ilusioa" duela nabarmendu du etxarriarrak

Maider Betelu Ganboa
ALTSASU / ETXARRI ARANATZ

Joanes Bakaikoa Satrustegi pilotaria une oso gozoan dago. Astelehenean Promozioko Lau eta Erdiko Txapelketarako finalerako txartela lortu zuen Logroñon, Dario Gómez Gilen kontra jokatutako finalerdi gogor eta estuan, eta igandean Iraitz Zubizarreta Agirre izango du aurkari Altsasuko Burunda pilotalekuan jokatuko den finalean (17:00etan, ETB1). 2018an Promozioko kaiolako txapela lortu zuen Bakaikoak Peña II.ari 16 eta 22 irabazita, eta urte berean Buruz Buruko Promozioko txapela jantzi zuen Erasun 17 tantotan utzita. Igandean bere hirugarren txapela lortu nahi du, kaiolako bigarrena.

Darioren kontra jokatutako finalerdia "oso gogorra" izan zela adierazi du. "Ez dakit ongi edo gaizki jokatua izan zen, baina fisikoki oso gogorra izan zen, biok lehertuta bukatu genuen" dio. Paretsu ibili ziren, baina Dario 19 eta 16 aurreratu zenean, etxarriarrak sekulako defentsa egin zuen, eta partidari buelta emateko gai izan zen, 20 eta 22 gailenduz. "Berdinduta joan ginen partida osoan zehar eta tentsioa erabatekoa zen, baina partidan egotea lortu nuen, partidatik ez ateratzea, eta kontentu nago" gaineratu du.

Iraitz Zubizarretak eta Joanes Bakaikoak atzo aukeratu zuten materiala, Burundan.

Partidatik ez zen atera

Defentsa on batek, ez etsitzeak eta eustearen indarrak nolako garrantzia duen erakutsi zuen Bakaikoak. "Banekien berak batez ere botera abiadura handia ematen diola pilotari, eta ni saiatu nintzen defentsan ahalik eta hobekien egoten. Nahiz eta erasoan sentsaziorik onenak ez izan, partidan ahalik eta hobekien zentratuta jarraitu nuen eta helburua lortu nuen: partida gogortzea eta nire alde ateratzea" aipatu du.

Bakaikoa partida bakarra galduta iritsi da finalera, eta gainontzekoetan maila oso ona emanda. Belauneko lesio batetik atera dela kontuan hartuta, sari ederra. "Oso pozik nago. Banekien nirea egiten banuen finalera iristeko aukera nuela, baina, aldi berean, edozeinek irabazi ahal zidala, zaila delako. Beti esaten dut Lau eta Erdikoa orain oso azkarra dela eta edozeinek irabazi ahal duela" dio aurrelari etxarriarrak.

Zubizarreta, "oso arriskutsua"

Zubizarreta III.a arerio latza dela uste du. "Astelehenean berak Zabalaren kontra jokatutako finalerdian oso ongi ikusi nuen. Pilotari oso bizia da, pilotari abiadura handia ematen dio, airera bereziki. Airez oso ongi moldatzen da eta kolpe handikoa ez den arren, aurrean oso gaiztoa da. Pilota efektuarekin asko mugitzen du eta oso arriskutsua da" horiek Zubizarreta definitzeko etxarriarraren hitzak.

Ilusio handia

Asteartean atsedena hartu zuen Bakaikoak. Ez omen zuen "halako palizarik" aspaldian hartu. Baina asteazkenetik burua finalean du eta buru belarri entrenatzen ari da. Atzo, osteguna, egin zuten material aukeraketa. "Berak azpitik gehiago ibiltzen diren pilotak aukeratu ditu, eta nireak pixka bat sendoagoak dira, bote handiagoa dutenak" azaldu du Bakaikoak.

Altsasuko frontoian lehenengo aldiz ariko da profesional gisa, eta "sekulako ilusioa" duela aitortu du. "Etxarritik oso gertu dago, Sakanan bertan, eta horrek beti ilusioa pizten du. Esan didatenez eta ikusi dudanez, Altsasukoa frontoi zorrotza da. Sakeak ongi egiten badira eta jokoaren ekimena hartuz gero, min handia egiten da, eta ni nirea ahalik eta hobekien egiten saiatuko naiz" nabarmendu du.

Dominatzea, gakoa

Finaleko estrategia zein izango den argi du etxarriarrak: "Nik dominatzea. Buruz buruko partidetan dominatzen duenak asko du irabazita. Defentsan ongi egotea garrantzitsua da, baina defendatzeaz aparte eraso egin behar da, defentsan partida gutxi irabazten baitira. Eta horretan saiatuko naiz, berari ni erasotzen ez uzten, eta nik berak baino gehiago erasotzen" azpimarratu du Bakaikoak.

Laugarren finala

Promozio mailako laugarren finala jokatuko du igandean Bakaikoak. Lau eta Erdian Altsasukoa bigarren finala izango du, beste biak Buruz Burukoak izan baitziren (2018an Promozioko Buruz Buruko txapelduna izan zen eta 2017an txapeldunordea). Hala ere, ez du bere burua faborito ikusten "txapelketa horiek aspaldi jokatu zirelako. Igandekoa lehenengoa balitz bezala hartzen dut. Esango nuke biak antzeko egoeran iritsiko garela finalera" uste du etxarriarrak.

Txapelaren bila

Bakaikoak igandeko txapela nahi du. "Finalean egonda pozik nago, baina orain txapelaren bila noa. Badakit ongi jokatuz gero nire aukera dudala, baina berak ere badu berea. Partida batera, ikusiko dugu zer pasatzen den.Orain arte emandako mailarekin pozik nago eta hala jarraitzea espero dut" dio. Txapela lortuko balu, "lehendabizikoa balitza bezala" ospatuko luke. "Edo agian gehiago, gaizki pasatzen denean gero gehiago disfrutatzen delako. Ikaragarri disfrutatuko nuke" aitortu du. Burundak erabakiko du.

"ESTRATEGIA ARGIA DA: NIK DOMINATZEA. DOMINATZEN DUENAK ASKO DU IRABAZITA"
JOANES BAKAIKOA

---

jokatu du, baina nik ez dut lortu nirea egitea, eta pena hori dut. Halako pilotari baten kontra ez badituzu zure aukerak baliatzen berak bukatzen du tantoa" azaldu zuen Ezkurdiak, oso triste.

Beheraldiari eta kolpe gogorrari buelta ematen ari da arbizuarra. Bihar, larunbata, Lau eta Erdiko hirugarren postua erabakitzeko partida jokatuko du Peio Etxeberriaren kontra (17:15ean, ETB1). Finalaren atarian geratzea ez da gustagarria, eta hirugarren postua lortzeko finalean ez du inork bere burua ikusi nahi, baina partida berezia izango da, Ezkurdiak Etxeberria oso lagun duelako. Berarekin entrenatzen du eta bere botilleroa izan da kaiolan.

Ezkurdiak eta Etxeberriak ez dute biharko partidarako orain arte izan duten motibazio berbera, baina hobe hirugarren postua lortu eta podiumera igo, batere gabe gelditzea baino, eta lehia polita espero da Iruñeko Labriten.

Asier Estarriaga Navarro, Ataungo Hiru Auzoetako Lasterketako helmugara iristen, bakarrik. UTZITAKOA

"Behobiarako sentsazio oso onak lortu nituen Ataunen"

ASIER ESTARRIAGA NAVARRO KORRIKALARIA

ATLETISMOA Ataungo Hiru Auzoetako Lasterketa irabazita, Behobia-Donostian eta Sevillako Espainiako Taldekako Kros Txapelketan du burua korrikalari etxarriarrak

Maider Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ

Igandean Ataungo Hiru Auzoetako 40. Mantzaren Oroimenezko Lasterketa jokatu zen, Ataungo San Gregorio, San Martin eta Aia auzoak batu zituena. 100 korrikalariren artean 24 urteko Asier Estarriaga Navarro gazte etxarriarra (1:00:47) eta Oihana Kortazar Arantzeta mutrikuarra gailendu ziren (1:04:52). Azken honek minutu bat eta zortzi segundotan apurtu zuen Maite Maiora Elizondok aurretik ezarrita zuen errekorra (1:06:00). Ataungoa irabazita, azaroaren 14an jokatuko den 56. Behobia-Donostiara sentsazio bikainekin iritsiko da etxarriarra eta aste bat beranduago Espainiako Taldekako Kros Txapelketan parte hartuko du, Sevillan.

"ATAUNERA BEHOBIA PRESTATZERA JOAN NINTZEN; IRABAZTEA EZ NUEN INONDIK INORA ESPERO"

Ataungo Hiru Auzoetako Lasterketan garaipen ederra lortu zenuen. Minutu bateko tartea atera zenion bigarrenari, Angel Vazquez Iglesias lazkaotarrari (1:01:47).

Minutu bateko alde horrek ez du esan nahi lasterketa erraza izan zenik. 17 kilometroko proba zen, eta lasterketa oso lehiatua izan zen; hasieran guztiak batera atera ginen, baina gero Angel Vazquezek eta biok aurrera egin genuen eta 12. kilometrora arte elkarrekin joan ginen. Bata besteari begira geunden, elkarri aztertzen, ezagutzen ez ginenez, ez genekielako batak besteari non egin ahal genion mina.

Non jo zenuen azken erasoa?

Lasterketa erdialdean, Aiara iristen ari ginela, berak aurrera egin zuen. 10 segundo atera zizkidan, eta buelta hartuta beheraka hasi ginenean estutzeko garaia zela ikusi nuen, eta bera harrapatu arte ezin nintzen gelditu. Kaxetara iritsi ginenean, portua bukatu zen eta hortik aurrera beheraka egiten zuen lasterketak, baina ez horrenbesteko maldarekin. Hor nire erritmoan hasi, aurrea hartu eta tartea ateratzen hasi nintzen, bukaerara arte. Distantzia motzetan oso azkarra ez naizenez, banekien tartea ateratzeko lehenago egin behar nuela aurrera.

Ataungo hiru auzoak lotzea, proba berezia izango da.

Bai. Gainera, "normaltasunean" gaudenetik lehendabiziko probetako bat zen, oso proba herrikoia. Auzoetan jendeak asko animatzen zuen, eta nahiz eta auzotik auzorako tarteetan bakarka aritu, beti zebilen antolakuntzako norbait bueltaka, bizikletak pasatzen ziren… Polita izan zen. Animatzen zaituzte eta horrela errazago egiten duzu.

Lasterketa irabaztea espero zenuen, asmo horrekin joan zinen?

Ez, ni Ataunera joan nintzen azaroaren 14an jokatuko den Behobia-Donostia prestatzera, antzeko distantzia delako eta Ataungo lasterketa ere gogorra delako; Behobiarekin antzekotasuna du. Behobiari begira, neure burua neurtzeko eta sentsazioak ikusteko lasterketa perfektua zen, baina ez nuen uste irabaziko nuenik.

"PISTARI GUSTUA HARTU DIOT. AZKENEAN PISTAK ZURE TOKIAN JARTZEN ZAITU"

Bezperan, Iruñean Harresien Lasterketa ezaguna jokatu zen. Behobia prestatzeko Iruñekoa baino Ataungo ibilbide gorabeheratsua nahiago izan zenuen, hortaz.

Bai, Ataungoak zituen malda eta erritmo aldaketengatik eta baita ere igande goizean zelako, Behobiako igandearekin gehiago nabaritzen delako. Iruñeko lasterketak arratsaldean eta gauean ziren, eta niri arratsaldez lehiatzea ez zait gehiegi gustatzen, egun guztian buruan duzulako; nahiago dut goizean.

Noiz hasi zinen korrika?

Aita korrika ibiltzen zen, arreba baita, eta ni futbolean. 18 urterekin futbola utzi, eta geroztik korrika ibili izan naiz, baina pandemia garaian fundamentu gehiagorekin hasi nintzen; serioago hasi nintzen entrenatzen.

Federatuta zaude eta Nafarroako Atletismo Txapelketetan aritzen zara, pista probetan eta krosean. Hau da, ez duzu soilik lasterketa herrikoietan parte hartzen.

Pandemiagatik lasterketak bertan behera geratu ziren, eta Nafarroako Atletismo Federazioak antolatutako pista eta bestelako lasterketetan aritzea guretako salbazioa izan zen. Lasterketa herrikoiak beroagoak dira, jendeak animatzen duelako, eta pistan dena hotzago da, kalkulagailua bezala. 400 metro dituzu, eta X buelta egin behar dituzu, beti erlojuari begira, segundo bat gutxiago, bat gehiago… baina pistari gustua hartu diot. Azkenean pistak zure tokian jartzen zaitu. Hor ez dago bromarik. Distantzia luzeak nahiago ditut, 5 kilometrotik gorakoak, eta 10 eta 20 kilometro tartean badira, hobeki. Esprinta ez da nire indargunea.

Pistan Espainiako Txapelketetan aritzeko gutxieneko denborarik lortu ahal duzu?

Pistan distantzia asko daude, eta maratoi erdian, 21 kilometrotan, aukeraren bat egoten da gutxieneko denboragatik Espainiako Txapelketara joateko, baina 10 kilometroko eta hortik beherako probetan oso zaila da joatea, ia ezinezkoa.

Krosari esker Espainiako Kros Txapelketan parte hartzeko aukera izango duzu, urriaren 24an jokatutako Lizarrako Krosean, aldi berean

Sakandarrak

Ataungo Hiru Auzotako Lasterketa (17 km)

• Gizonak	
1.Asier Estarriaga	1:00:47
28.Ioseba Iza	1:09:04
38.Felix Benjumea	1:11:21
96.Aritz Munarriz	1:34:40
97.Alatz Agirre	1:34:42
• Emakumeak	
1.Oihana Kortazar	1:04:52

Nafarroako Kluben Arteko Txapelketa zenean, zure taldea, Beste Iruña, hirugarren sailkatu zelako.
Lehen postua Hiru Herrik lortuko zuela bagenekien. Espainiako Txapelketara lehengo bi klubak joaten dira, eta bigarren postuarengatik lehiatzen ibili ginen Zizurko Ardoirekin. Puntu gutxi batzuengatik irabazi gintuzten eta gu hirugarrenak izan ginen. Baina Espainiako klub guztien arteko zerrenda bat dago, eta sailkatutako norbaitek huts egiten badu zerrenda horretan dauden taldeak haien ordez sar daitezke; eta ia konfirmatuta dago azaroaren 20an eta 21ean Beste Iruñakoak Sevillara joango garela, Hiru Herrikoekin eta Ardoikoekin batera.

Lizarrako Krosean hamazazpigarren sailkatu zinen.
Ez nuen nik uste nuen maila eman, eta alde horretatik ez nintzen oso gustura gelditu. Horregatik, Ataungo lasterketan lortu nituen sentsazio horiek sentitzea behar nuen; egindakoarekin ongi sentitzea. Azkenean, exigente xamar bihurtzen gara (kar, kar).

Aurtengoa ez da zure lehenengo Behobia-Donostia, ezta?
Ez, hiru eginak dauzkat eta aurtengoa laugarrena izango litzateke. Helburua nire marka hobetzea da (1:18:30). Buruan denbora batzuk ditut, baina denetatik gertatu ahal zaizu. Eguraldiak asko baldintzatzen du. 25 graduko egun bat atera daiteke, korrika egitea ia ezinezkoa dena, edo 10 graduko eguna eta txirimiria. Orduan bai gozamena.

Beste lasterketaren bat egingo duzu asteburuan Behobia prestatzeko?
Argi dago bi asteren faltan lanak eginak daudela, hortik aurrera ezin duzu miraririk egin. Are gehiago, gehiegi pasatuz gero kalterako izan daiteke. Beraz, entrenatu eta lasaitasunez hartuko dut asteburua, psikologikoko deskantsatzeko oso ongi etortzen baita.

Azaroaren hirugarren asteburuan Sevillan jokatuko diren Espainiako Kros Txapelketarako (10 km) ongi etorriko zaizu aste bat lehenago Behobian parte hartzea?

"AURTENGOA LAUGARREN BEHOBIA IZANGO LITZATEKE, ETA HELBURUA NIRE MARKA HOBETZEA DA"

Asier Estarriaga Navarro, Ataunen lortutako txapela eta sariarekin. UTZITAKOA

Behobia ondoren gehienbat ongi errekuperatzea izango da egin beharrekoa, Sevillara hankak ongi deskantsatuta joatea. Krosean nekea askoz gehiago nabaritzen da eta segundoak azkarrago pasatzen dira, baina hori ere plus bat da.

Uztailean Larrate Trail Laburra irabazi zenuen Zarrakaztelun. Mendia, asfaltoa, pistak… zein nahiago?
Asfaltoa guztiaren gainetik. Nabari du aspergarriagoa dela baina hobeto defendatzen naiz asfaltoan. Mendian asko sufritzen dut txorkatiletatik. Beldur hori, gero goraka ere ez naizela oso trebea... asfaltoan hobeki. Une horretan ez zegoen apenas lasterketarik, eta hiru trail antolatu zituzten, Lerinen, Andosillan eta Zarrakaztelun. Ez zirenez oso luzeak eta ez zutenez desnibel askorik, denboraldia sentsazio onekin bukatzeko aproposak iruditu zitzaizkigun eta bertan aritzera animatu ginen.

Hortaz horregatik aritu zinen traileta n, besterik ez zegoelako.
Hasieran ez nuen asmorik, denboraldia nahiko luzea izan zelako. Lasterketa gutxi zeudenez, batetik bestera desgastatuta bezala iristen nintzen. Pistako probak ziren, eta horrek ere nekatzen zuen. Denboraldi bukaera zenez, pentsatu nuen: zergatik ez trail horietara joan eta disfrutatu? Horrela izan zen.

Larrate Traila irabaztea sorpresa izan zen?
Bai. Aurretik Lerinen egon ginen, eta 9 kilometroko trail laburrean ni bigarren sailkatu nintzen eta laguna, Ivan Sobredo Paz, hirugarren. Gero Larrate Trailera animatu ginen, eta irabaztea (46:55) sorpresa izan zen, bai.

Etxarri Aranazko mendi lasterketetan aritzen zara?
Triku Traila egiteke dut. 17-18 urte nituela Triku Trail laburra egin zen, juniorrendako, eta bertan aritu nintzen, baina proba osoa ez dut egina. Aldiz, Ferietako Mendira Joan Etorria hirutan egin dut. Aurten ezin izan nuen parte hartu, Valentzian 10 kilometroko lasterketa batean parte hartzen ari nintzelako.

Ongi ibili zinen Valentzian?
Bai, baina hura beste errealitate bat da. 7.000 korrikalari geunden, pentsa. Hara joaten zara denbora ona egitera eta marka lortzera, postuak berdin du.

Noiz arte luzatuko duzu aurtengo denboraldia?
Bakoitzak denboraldia bere modura antolatzen du. Ni abuztuan hasi nintzen. Neurriak arindu zirenez, jakina zen lasterketa guztiak itzuliko zirela, eta horrek esan nahi du egutegian lasterketa asko ditugula aukeran. Denboraldia noiz bukatuko den, ez dakit. Hankek laguntzen badute, ekainera arte edo maiatzera arte ez gara gelditukо. Urtea ongi bukatzeko Altsasuko San Silvestrea egingo dut, eta hortik aurrera egutegiarekin jarriko gara topera.

Zergatik aukeratu zenuen Beste Iruña taldea?
Beste Iruñako presidenteak ezagutzen gintuen, eta eurekin aritzeko animatu gintuen. Pausoa eman, eta oso gustura aritzen gara. Sakandar batzuk bertan gabiltza: bi lakuntzar, olaztiar bat, nire arreba eta ni… Bakoitzak bere entrenamenduak egiten ditu bere kasa, baina taldean entrenatzeko hiruzpalau egun daude.

Ruben Mendieta Alegria, podiumeko bigarren kaxoian. IRUÑEKO HARRESIAK

Ruben Mendieta Alegria, Forteko lasterketan bigarren

ATLETISMOA Iruñeko Harresien Lasterketan 4.219 korrikalari sailkatu ziren eta olaztiarra podiumera igo zen

Larunbatean Iruñeko Harresien Lasterketa jokatu zen, Gotorlekuan barrena arratsalde eta gauean jokatzen den lasterketa ezaguna. Bost lasterketa jokatu ziren guztira: Baluarte lasterketa (21 km), Harresien lasterketa (15 km), Gotorleku lasterketa (10 km), Forteko lasterketa (5,5 km) eta haurrendako Piratak lasterketak.

Iruñeko Harresien Lasterketak geroz eta parte hartze handiagoa du. Haurrendako lasterketak kontuan hartu gabe, 4.219 korrikalari sailkatu ziren. Maratoi erdia edo Baluarte lasterketa 212 korrikalarik osatu zuten, Harresien lasterketa 778 korrikalarik, Gotorleku lasterketa 2.098 korrikalarik eta Forteko lasterketa 1.131 korrikalarik. Horietako asko sakandarrak ziren. Batzuk bakarrik, taldean besteak, arratsalde gau pasa polita egin zuten gure korrikalariek.

Lehen hamar postutan, bi sakandar
Lehendabiziko hamar postuak kontuan hartuta, bi ordezkari sakandar izan genituen. 21 kilometroko Baluarte lasterketa Andrew MacLeod Leggok (1:10:27) eta Sara Llamas del Serrek (1:33:00) irabazi zuten, eta David Mutiloa Orkarai irurtzundarra zazpigarren sailkatu zen (1:20:45). 15 kilometroko Harresien lasterketan Ibai Alba Vilchez (53:04) eta Naiara Irigoien Indabe (1:04:16) gailendu ziren. 10 kilometroko Gotorleku lasterketan Antonio Etxeberria Serrano (34:48) eta Ana Llorens Perez (38:51) izan ziren txapeldunak; eta, bukatzeko, 5 kilometroko Forteko lasterketan, gizonezkoetan, Iñigo Garcia Gabari (17:36) gailendu zitzaion Ruben Mendieta Alegria olaztiarrari (18:02). Emakumezkoetan Alicia Carrera Hernandezek irabazi zuen (19:19).

Iruñeko lasterketa ezaguneko irteeretako bat. IRUÑEKO HARRESIAK

Sakana Trail Estazioaren aurkezpena Olaztin

MENDI LASTERKETAK Gaur, ostirala, 19:00etan izanen da, Olaztiko Kultur Etxean. Sakanako Trail Estazioaren ibilbideetako bat Olazti-Urbasa Traila da, eta mendi korrikalariei eta mendizaleei bideratutako ekimen honen berri emanen da

Uztailean mustu zen, Uharte Arakilgo Itxesi gunean, Sakanako Trail Estazioa. Bost ibilbidek osatzen dute, Sakanan egiten diren bost mendi lasterketa edo ibilbidetan oinarrituta daudenak: Beriain Km Bertikala, Triku Trail, Olazti-Urbasa Trail, Lakuntza-Aralar eta Hiru Mendi Zerrak. Helburua aisialdiko aktibitateak sustatzea eta bisitariei gure ondarea erakustea da, kasu honetan, mendi korrikalariei bideratuta.

Sakanako Trail Estazioa Euskal Herriko Trail Estazioko parte da, eta Gipuzkoarekin 19 ibilbiderekin bat egiten du; beraz, guztira 24 ibilbide dira. Bestalde, Euskal Herriko Estazioa Station de Trail marka frantsesaren barruan dagoenez, horrek bultzada eman dio egitasmoari. Ibilbide guztiak seinaleztatuta daude, eta mugikorretan 'Station de Trail' APPa jaitsita, ibilbidearen tracka eta informazio guztia eskuragarri dago.

Mendi klubetako kideak, Sutegikoak tartean, Sakanako Trail Estazioaren mustutzean.

Kirolariendako tailerra

Gaur, ostirala, azaroak 5, aipatu Sakanako Trail Estazioa aurkeztuko dute Olaztiko Kultur Etxean, 19:00etan. Sakanako Trail Estazioa zer den, Sakanako ibilbideak zeintzuk diren eta Estazioak eskaintzen dituen tresnen berri emanen da, eta ondoren korrikalari eta kirolariendako hitzaldi tailer praktikoa eskainiko du Xalokeko Ana Carmen Huartek dietista nutrizionistak.

ARETO FUTBOLA

Xotak Barça hartuko du, hiru baja garrantzitsurekin

Gaur, ostirala, egun handia da Osasuna Magna Xotarendako. Imanol Arregiren taldeak sailkapenean bigarren den Barça talde ahaltsua hartuko du Anaitasunan, 20:30an, eta partidak piztu duen ikusminaren isla, Xotak partida klubaren eguna izendatu du. Sarrerak Anaitasunako txarteldegian jarriko dira salgai.

Talde berdea aurreko astean Zaragozari 3 eta 7 irabaztetik iritsi da partidara. Imanol Arregiren esanetan taldea "oso ongi" aritu zen. Sailkapenean gora egin dute berdeek eta seigarren daude, baina Barçaren kontrako partidarako hiru baja oso garrantzitsu dituzte: Bynho, Toni Escribano eta Carlos Vento. Klubak zaleen babesa eskatu du. "Guretako oso garrantzitsua da gure jendearen babesa. Jokalariak ere babestuago sentitzen dira" azaldu du Imanolek.

XOTA

Lehen garaipena ospatzen

ARETO FUTBOLA Emakumezkoen Seniorreko 2. Mailan aritzen den Xota B taldeak denboraldiko lehen garaipena lortu zuen. Oliteri 2 eta 1 irabazi izana gogoz ospatu zuten. Bihar Gazte Berriak izango dute arerio, 12:00etan, Antsoainen. Lehen Mailan Xotak launa berdindu zuen Iruntxikirekin, eta igandean Mutilberaren kontra jokatuko du Arangurenen, 11:00etan.

ZABALARTE

Zabalarte egunean Pumorin zendutakoak gogoan

MENDIA Zabalarte eguna antolatu zuen igandean izen bereko Lakuntzako mendi taldeak. Goizean Beriain aldera jo zuten mendizaleek, Ondatzera. Han, duela 20 urte Pumorin mendi istripuz zendutako Javi Arkauz Rincón lakuntzarra eta Aritz Artieda Larraza etxarriarra izan zituzten gogoan. Lore eskaintzarik ez zen falta izan, baita Lakuntzako oroigarrian ere. Horretaz gain, Sakanako Trail Estazioan jasotako Lakuntza-Aralar Traila aurkeztu zuten, Zabalartek antolatzen duen Lakuntza Aralar Mendi Lasterketan oinarritzen den ibilbidea.

FOTOSPORT

Maitane Vilariñoren urrezko gola

FUTBOLA Emakumezkoen Osasuna talde nagusiak garaipen garrantzitsua lortu zuen Atletico de Madrid taldearen kontra. Gorritxoak 0 eta 1 gailendu ziren, 13. minutuan Maitane Vilariño olaztiarrak madrildarren defentsa akats bat probestuz sartutako golari esker. Sailkapenean bigarren da Osasuna, eta igandean Parquesol taldea hartuko du Taxoaren.

Kantautorea baino, trobadorea

Jorge Sánchez musikari kubatarrak Silvio Rodriguezen ibilbidearen abesti esanguratsuenak hartu ditu eta 'Silvio en ti… y en mi' kontzertua sortu du. Bihar, larunbata, 19:00etan, Olaztiko kultur etxean emanaldia eskainiko du

Erkuden Ruiz Barroso OLAZTI

Sakana zonalde "eskertua" dela esan du Jorge Sánchez trobadoreak. Ibarreko herri askotan aritu da, eta denetan erantzun ona izan du. "Guretako oso positiboa da hori, Kubako troba berria oraindik presente dagoela esan nahi duelako, eta eskertzen da". Orain, Silvio Rodriguezen izenaren pean doa kantautorea, "baina ez da omenaldi bat edo ordain bat". *Silvio en ti… y en mi* kontzertua sortzeko Sanchezek artista kubatarren ibilbidean "zerbait" esan dioten hemezortzi abesti bildu ditu. Bihar, azaroak 6, larunbata, 19:00etan, Olaztiko kultur etxean kontzertua eskainiko du.

Musika berarekin sortu den zerbait dela esan du, "kantautoreen unibertsitatean graduatua naizela esan ohi dut". "Nire etxean musika asko jotzen zen. Ilunabarretan nire aita edo aitona gitarrarekin hasten ziren. Azkenean, hori barruan geratzen da. Arrasto hori geratzen da". Sánchez etxean entzundakoa "hobetzen" saiatu da.

Kubako Santiagoako Instituto de la Música delakoan hasi zen Jorge Sánchez musikaren munduan. Bertan audizioak egiten dituzte, eta musikariek probak pasatzen dituztenean, katalogo batean sartzen direla azaldu du. "Profesionalki 1993. urtean hasi nintzen musikan. Katalogo horretan 1999. urtera arte egon nintzen, eta Cuencan promozio bira bat egiteko aukera sortu zitzaidan". Hortik aurrera "gauza positiboak" gertatzen hasi ziren. "Bira txiki horretatik, 22 urte daramatzat Euskal Herrian abestien bidez nire gauzak abestien bidez kontatzen".

1960ko hamarkadaren bukaeran Kuban kultura mugimendu edo fenomeno berri bat sortu zen: Kubako troba berria. Troba tradizionaletik elikatzen zen. Mugimendu honetako sortzaile erreferenteak, besteak beste, Silvio Rodríguez, Pablo Milanés, Noel Nicola eta Vicente Feliú izan ziren. "Gaur egun denboran irauten duen musika mota bat da, baita nazioartean ere". Horren adibide Silvio Rodriguezek irailean eman zuen kontzertua dela azaldu du Sanchezek. "Harrituta gelditu nintzen. Herrialde askotako jendea zegoen. La Tropa Cósmica deitutako talde bat dago, zenbait herrialdetako jendea biltzen du, eta Silvioren kontzertuetara joateko biltzen dira". Kubako troba berria mugimenduak gaur egun duen indarraren adierazle da. "Jendea oso fidela da, eta ni oso harro nago".

Jorge Sánchez kantautorea. UTZITAKOA

KANTAUTOREEK ABESTIAK EGITERAKOAN GIZARTEAREKIKO "KONPROMISO" BAT DUTE

Jorge Sánchez kantautoreak ez du troba berriaren jarraipen bat egin, baina bere musikan eragin handia izan duela ezin du ukatu: "Idazteko eta konposatzeko orduan eragin asko du. Musika eta poesia patroi horietatik edaten dut". Bakarrik gitarraren zenbait akorde jotzearekin jendeak generoa identifikatzen duela esan du: "Azkar batean Kubako troba berritik natorrela diote". Ahotsaren tonuan ere "nahi eta nahi ez" nabaritzen dela esan du. "Kantatzen ari zirenean Silvioren antza dudala esaten dute. Ez dit molestatzen, norbaiten antza izan behar badut, nor hobe baino Silvio, baina saiatzen naiz nire zigilu pertsonala izaten".

Trobadorea

Kantautoreek abestiak egiteko orduan "konpromiso" bat dute. Orokorrean, konprometitutako abestiak sortzen dituzte, mezu bat dutenak. Sánchezek *Nagore Laffage* izena duen abesti bat dauka, genero indarkeriaren aurka egiten duena; *La Ira* arrazakeriaren kontrako abestia Madrilen eraso xenofobo eta arrazista bat egon ostean idatzi zuena, eta maitasun abestiren bat ere dauka, *El amor que das abestia*, esaterako. *Hay razones* abestiarekin kantautoreek, "eta are gehiago trobadoreek", abestiak egiteko orduan izan behar duten konpromiso hori aldarrikatzen du. "Ez da berdina gitarra hartzea eta maitasunaren inguruko abestiak sortu edo gizartean eragina izango duen gertaera bati buruz idaztea". Biek balorea dute, "baina kasu honetan kantautore batek musikaren bidez injustiziak salatu eta aurre egin behar die".

Silvio Rodriguezen musika ibilbidearen inguruko kontzertu bat egitea Binario Estudioko ekoizlearen ideia izan zela esan du Sanchezek. "Esan zidan ea zergatik ez nuen horrelako ibilbide bat sortzen, ez omenaldi edo ordain bat, baizik eta Silvioren zenbait abestien errepasoa, jendeak presente dituenak eta niri gustatzen eta zerbait esaten didatenak". Hasieran ezetz esan zuen, ez zuelako Silviorekin lerrokatu nahi, "baina nire adinarekin kantautore bezala daramatzan urteekin pentsatu nuen dagoeneko ez naizela aurkikuntza bat izango, orduan, egingo dut".

Bizitzaren une desberdinetan esanahi berezia izan duten edo bereziki gustatu zaizkion Silvio Rodriguezen hemezortzi abesti hartu zituen eta horrekin ikuskizuna sortu zuen. Besteak beste, *Ojalá*, *Unicornio azul*, *Ramo de nube*, *Sueño de una noche de verano*… Prozesu honetan oso garrantzitsua izan da Binario estudio, eta oso eskertuta dago kantautorea. Gainera, Silvio Rodriguezen baimena dute. "Silviok Habanan duen bulegoarekin harremanetan jarri ginen eta berak pertsonalki proiektu honi buruz jakin zuen, prestatzen ari ginela bazekien. Baimena eskatu genion eta oso modu baikorrean erantzun ziguten. Guretako ilusio txute bat izan zen".

"Oraintxe bertan abestiak birziklatzen ari naiz. Hamalau abesti hartu ditut eta nire antologia txiki bat egiteko prestatzen ari naiz. 51 urte ditut, eta badut adina antologia egiteko". Gitarra hartzen duen bakoitzean melodia "pila bat" sortzen zaizkio, izan ere, Sanchezek lehenengo melodia sortzen du eta horren gainean letra idazten du, baina orain "beste fase batean" dago. "Adinarekin eta esperientziarekin gitarran hobetu dut eta baliabide gehiago ikasi ditut, eta abesti horiei beste akorde bat sartuz asko hobetzen duzu". Edo balada zenari reggae ukituak sartu dizkio. "Abestiak eraldatzen ari naiz". Momentuz, ez daki abesti horiek grabatuko dituen, kontuan hartuz "gaur egun musikaren mundua nola dagoen". Baina Silvioren musikan oinarritutako emanaldien bira bukatzean, eraldatutako abesti hauen kontzertuak ematea espero du.

Eneko Lazkoz finalera

Eneko Fernandezen ordez aritu zen Eneko Lazkoz Martinez etxarriarra Nafarroako Bertsolari Txapelketaren lehen finalaurrekoan, Altsasun, eta saioa irabazi zuen. Finalerako sailkatu da. Saioan Oier Lakuntza Irigoien seigarren sailkatu zen. Larunbatean, 17:30ean, bigarren finalaurrekoa jokatuko da, Berriozarren.

BAZTERRETIK

RICARDO ARETA URRESTARATZU

Saioko musikariak

Musika industriaren barruko figura ezkutuenetako bat, zalantzarik gabe, saioko musikariena da. Ez dira talde jakin batekoak, baina haietako askorekin grabatzen dute, eta batzuetan ez dira diskoen kredituetan agertzen ere. Grabazio estudioen edo beren etxeen intimitatean egiten dute lan, txalo edo txistu egiten duen ikuslerik ez dagoen lekuetan. Azkenaldian, horrelako musikarien eskaria handitzen ari da, eta haien zerbitzuak gero eta gehiago eskatzen dituzte bai musika taldeek, bai proiektu diskografiko baten buru jartzen diren ekoizleek.

Informatika musikalarekin bizi izan dugun garapen teknologiko guztiak edizio tresnetan abusua ekarri du berarekin, eta erdipurdiko edozein musikarik exekuzio perfektua lor dezake bere grabazioetan, hain perfektuak non batzuetan irrealak eta denak berdinak diruditen, mundu guztiak tresna berberak erabiltzen baititu.

Hori da musikari edo ekoizle batek saioko musikarien zerbitzuak eskatzeko arrazoi nagusietako bat. Estudioko lanean espezializatuta daude, beren soinua xehetasunez zaintzen dute, bakarra eta natural izan dadin, eta grabazioan hori islatzeaz arduratzen dira. Exekuzioan maila handia dute, hartualdi batean edo bitan abesti bat grabatu ahal izateko eta grabazioak robotizatzen dituen edizio informatikoa beharrezkoa ez izateko. Gainera, estilo ugari menperatzen dituzte eta oso ohituta daude musikariak edo ekoizleak lan bakoitzerako duen ideia jasotzen.

Hamarkada luzez, izar handi guztiek saio musikariekin lan egin dute. Izan ere, estudio handiek horrelako musikariak zituzten beren nominan, eta grabazioa, nahasketa edo masterizazioa bezalako zerbitzua eskaintzen zuten.

Gaur egun oso erraza zaigu sare sozialen bidez munduko edozein bazterretako edozein musikarirekin harremanetan jartzea, eta demokratizazio digitalak gure etxeko grabazioetan emaitza profesionalak lortzea lortu du, baita emaitzak elkarri oso modu ekonomiko eta eraginkorrean bidaltzea ere.

Maila profesionalean oso formula erabilia da, baina amateur mailan ere gero eta gehiago erabiltzen da, eta bere abestien konposizioa denbora-pasatzat duen edozein zalek disko bat grabatu dezake gaur egun. Diskoa hainbat herrialdetan grabatuta egon daiteke, baita elkar ezagutu ere egiten ez duten musikariek grabatuta ere, eta horrek artifizial samarra dirudien arren, diskoak sagu batekin grabatzea da gitarra batekin grabatu beharrean.

Tabuak antzerkiaren bidez azaleratzen

Nafarroako Gobernuaren 'Pertsonak gara' programaren barruan 'Sólo un metro de distancia' antzezlana izanen da gaur, Altsasun. Haurra zenean sexu abusuak jasandako emakume baten istorioa kontatzen du

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Herritarrekiko Harremanetarako Departamentuak Giza Eskubideei buruzko proiektuaren barruan *Pertsonak gara* programa dago. Urtean zehar eskubideen inguruan hausnartzeko hainbat ekimen antolatu ditu Nafarroako Gobernuak, eta *Sólo un metro de distancia* antzezlana horren barruan sartzen da. Altsasuko udalaren laguntzari esker iritsiko da saioa Sakanara. Haurren eskubideei buruzko lana da gaur (azaroak 5, ostirala) 19:00etan, Iortia kultur gunean Madrilgo Serena producciones-ek eskainiko duena. Haurrenganako sexu abusuen gaia azaleratzen du, "pentsatzen duguna baina ohikoagoa den arazo bat", Antonio Castro Guijosa antzezlanaren egileak eta zuzendariak azaldu duenez.

Bi baldintza bete ziren *Sólo un metro de distancia* antzezlana sortzeko. "Alde batetik, haurrak izan zirenean sexu abusuak jasan dituzten pertsonak ezagutzen ditudalako" eta, bestetik, "Madrilgo Cuarta Pared-en ikerketa bat egiteko proiektu bat aurkezteko aukera sortu zen. Interprete askok pertsonaia bakar bat interpretatzeko aukeraren inguruko proiektua zen". Proiektua aurkeztu zuen, eta ideia momentu horretan ikerketa egitea eta, ondoren, David Harrowerren Blackbird sexu abusuen inguruko antzezlan bat sortzea zen. "Katalunian eta Madrilen egin dute". Interes handia zeukan, baina ez zen atera. Horregatik, lagun batekin istorioa sortzea erabaki zuten. Denborarekin berriz hartu zuen eta "despertsonalizazio" ideia horrekin testua sortu zuen. Hau da, pertsonaia bat banatuta edo hedatuta ateratzen da aktore askotan. "Hori izan zen hazia".

Sólo un metro de distancia lanean, beraz, Ines-en istorioa kontatzen da. Haurra zenean sexu abusuak jasan zituen eta zauriak ixteko bidean ari da. "Testua idazteko jendearekin hitz egin dut, lagun psikologoa eta anbulantzia gidaria dena ere baditut, eta osatzen lagundu didate". Baina gehien bat *El corage de Sara* liburuan oinarritu dela esan du. "AEBtako bi psikologoek idatzi zuten eta abusuak jasan dituzten pertsonen faseak markatu zituzten".

'Sólo a un metro de distancia' antzezlana eskainiko dute ostiralean Altsasun. UTZITAKOA

ANTZEZLANA 'PERTSONAK GARA' PROGRAMAREN BARRUAN IRITSIKO DA ALTSASURA

Erronka

Lau aktorek kontatzen dute istorioa, aldi berean, pertsonaia nagusiaren papera hartzen dute. Antzezlanaren bigarren zatian aktore bakoitzak pertsonaia baten papera hartzen du. Prestatze prozesua "oso ona" izan zela esan du Castrok. "Berreskuratze ikuspuntutik lantzen dugu gaia, berreskuratze prozesua. Edozeinek izan ditzakegu zauriak, eta edozein errekuperaziotan eman daitezkeen egoerak ematen dira". Entseatzen zuten bitartean testua sortzen zuen, "eta oso polita zen ikustea testuak sortzen zituen emozioak".

Ana Mayo aktorea Ines da, eta entseatzen zeudenean testua irakurtzen "emozioak eutsi" behar zituela esan du. Pertsonaia "lotsatik" prestatu duela esan du. "Lotsak kulpara eramaten zaitu eta gertatu zitzaiona bere kulpa dela uste du. Gertatutakoa gogoratzean kanpora begiratzea kostatzen zaio". "Euspen" lan handia egin dute ere. "Hirugarren pertsonan kontatzen du, despertsonalizazioa ematen delako. Gertatu zitzaiona berari gertatu ez balitzaio bezala". Gai oso handia dela esan du aktoreak. "Emozioa dator, baina eutsi behar diozu". Aktore lan oso exijentea izan da, "erronka bat", oso kontzentratuta egon behar dute.

"Oso ongi funtzionatzen duen ikuskizuna da". MET eta Max sarietara izendatuta egon da. "Badu zerbait oso polita dena aktoreek harrapatzen zaituztela". Atmosfera polita sortzen dela esan du zuzendariak.

Hodei Magoa 'Ezinezkoaren logika' ikuskizunean. UTZITAKOA

"Ikuskizun hau lortu duzu esateko modu bat da"

ODEI DOMINGO MENDILUCE HODEI MAGOA

Ezinezkoari logika aurkitzen saiatu da Hodei Magoa bere ikuskizun handienean: 'Ezinezkoaren logika'

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Magia "freskoa, desberdina eta oso umoretsua" eskainiko du Hodei Magoak bihar, larunbata, 17:30ean, Etxarri Aranazko kultur etxean eta azaroaren 14an, igandea, 17:00etan, Iortia kultur gunean. *Ezinezkoaren logika* "amets bat" izan dela aipatu du Hodei Magoaren atzean dagoen Odei Domingo altsasuarrak. Publiko guztietarako magia ikuskizuna sortu du.

Zer da magia?

Niretako magia publikoari, unetxo batez, logika ez daukan zerbait erakustea da. Hortik sortu zen, hain zuzen, *Ezinezkoaren logika*. Azkenean, ezinezkoa da logika ez daukan hori, eta guk ilogikoa den horri logika jarriko diogu. Pixka bat aldrebestua da, baina nik uste oso ongi azaltzen duela zein den magoaren lana, eta hortik abiatu gara. Kontraesan horretatik sortu da ikuskizuna.

Eta zer da logika bilatu diozun ezinezko hori?

Asko kontatu gabe zaila da azaltzea. Duela bi urte inguru estreinatu genuen ikuskizun hau, 2019an; eta ikuskizunean magia fresko, dinamikoa eta desberdin bat proposatzen genuen. Publikoak ordura arte ikusi gabe zuena, eta kasu honetan pixka bat teatralizatuta dagoen magia ikuskizun bat da ere. Oso desberdina da ikusgarritasun bisual handia duelako. Ikuskizun honekin jendeak unetxo oso on bat pasako du; gaur egun oso beharrezkoa dena, kanpoko arazoak ahazteko aukera ona.

Jendeak magia behar du?

Jendeak kultura behar zuen, deskonexioa, eta guk, gainera, ilusioa gehitzen diogu unetxo horri. Orduan, bai, magia aukera oso ona izan da. Nik nabaritu dut lana egin ahal izan dudalako eta jendea gogo handiarekin etorri da antzokira. Ez du beldurrik izan, eta ez du parte hartzeko beldurrik izan. Guk ez diogu jendearen parte hartzeari utzi, osasun neurri guztiak betetzen. Gogoa erakutsi dute beti.

'Ezinezkoaren logika' zure ikuskizun handiena da, ezta?

Bai. Momentuz egin dugun ikuskizun handiena da. Orain berria prestatzen ari gara, handiagoa izango dena. Ikuskizun hau da nik txikitan mago izan nahi nuela esaten nuenean irudikatzen nuen ikuskizun hura. Orduan, nire buruari 'lortu duzu' esateko modu bat da. Gaztea zinenean hainbeste borrokatu duzun eta hain arraroa zen hura nire buruari erakutsi diot lortu dudala. Izan ere, 15 edo 16 urterekin 'mago izan nahi dut' esaten nuenean, jendeak aurpegi arraroa jartzen zuen. Baina hau da amesten nuen ikuskizuna. Gainera, ikuskizunak ere horri buruz hitz egiten du: ametsei buruz. Oso berezia da niretzat.

"JENDEAK KULTURA BEHAR ZUEN, ETA GUK, GAINERA, ILUSIOA GEHITZEN DIOGU"

Nola bete zenuen ametsa?

2019ko martxoan estreinatu genuen. Aurretik ibiltzen nintzen formatu txikiko ikuskizunak egiten, herrietako plazetan eta festetan. Horrelako proiektu handietarako finantzazio handia behar da, eta lan egin ondoren, aukera ikusi nuen. Zergatik ez naiz saiatuko? Pixka bat arriskatzea zen, antzokietarako zelako, beste formatu bat, zailagoa, baina horretarako etorri gara bizitzara: saiatzeko. Nire ametsa zen. Bi urteko prozesua izan zen, niretako guztiz desberdina zelako: askoz handiagoa eta prozesu guztiz zailagoa. Azkenean, lehenengo urtean beldurrarekin aritu ginen ez genituelako antzoki asko, baina kontrakoa dirudien arren, konfinamenduaren ondoren proposamen honekin gehiago mugitu gara. Aukera izan dugu mugitzeko, eta, garrantzitsuena, publikoari gustatu zaio.

"IKUSKIZUNEAN MAGIA FRESKO, DINAMIKOA ETA DESBERDINA PROPOSATZEN DUGU"

Nolakoa izan zen sormen prozesua?

Gure sormen prozesuak oso arraroak dira. Oso luzeak. Ideia magikoa sortu behar dugu, baita aurkezpena eta horren atzean dagoen guztia: istorioa edo ematen diozun gertaera. Ez da bakarrik magia, zerbait gehiagok egon behar du atzean; mezu bat edo kontakizun bat. Ondoren, eszenaratzea garatu behar da: argiztapena, soinua, koreografia... Pixka bat arraroagoa izan ohi da. Ikuskizun bakoitzean hamar edo hamaika joko egoten dira, eta horregatik luzatzen da prozesua denboran. Ikuskizun berria 2022an estreinatuko dugu, eta urte eta erdi daramagu prozesuarekin.

Dena da magiaren parte.

Pertsona bat edozein ikuskizun ikustera joaten denean errealitate horretan sartu behar da. Gure kasuan, gainera, magia egiten dugula, ez da bakarrik magia jokoa ikustea; jantzia, argiztapena, laguntzaileekin duzun harremana... Kapa asko daude, eta horiek elkartuta, hostopil bat izango balitz bezala sortzen da ikuskizuna.

Konfinamenduaren ondoren asko mugitzen ari zarete, eta ikuskizun berria sortzen ari zarete ere. Pandemiak lagundu dizu?

Ez. Lagun asko ditut magiaren mundu honetan eta askok esaten zuten pandemiak sormen momentuan lagundu diela. Etxean sartu eta sortzen hasi zirela. Barkatu, baina niri ez. Ni etxean nengoen, ezin atera, guztiok bezala, eta niretako horrela ezin da sormenik izan. Nik, normalean, kaletik noanean zerbait ikusten dut eta objektu horrekin zerbait egitea bururatzen zait. Taldean bildu eta zerbait ateratzen saiatzen gara. Etxean ezinezkoa zen hori egitea. Baina, bai, konfinamenduaren momentu gogorrenak amaituta, gogoak genituenez gauzak egiteko, ikuskizun berria prestatzen hasi ginen.

"Proiektua interesgarria iruditzen zitzaidan"

Bertako barazkiak eta frutak berreskuratzeko Arakilgo hazien sarea jarri zuten martxan. Helburua bertako haziak ugaltzea da. Mikel Jimenez Irurtzun ihabardarra sareko kidea da

Erkuden Ruiz Barroso IHABAR

Mikel Jimenez Irurtzun ihabardarra ereindako bertako letxugekin.

1 Nola izan da parte hartzeko prozesua?
Arakilgo Udala hasi zen mugitzen eta bertako haziak izan zitzakeen jendea bilatzen ari ziren. Nik baratze txiki bat nuenez galdetu zidaten. Ez neukan hazirik. Nire amonaren etxean bazuten baba beltz txiki bat eta aspaldi aitak landatzen du, eta esan ziguten oso antzekoa izan zitekeela beste baba batzuekin, nahiko zaharra zela. Horrela sartu nintzen.

2 Eta zergatik sartu zinen?
Interesgarria iruditu zitzaidalako. Azkenean, bioaniztasun asko galtzen ari da jendeak barietate berdinak erosten ditugulako. Agian hauek ez direlako hain politak, edo ekonomikoki aldea dagoelako. Lana eskatzen du ere. Azkenean, haziak hartu behar dituzu, landareak hazi, hartu eta hazia hartu berriz ereiteko. Beste modura aldiz landareak erosten dituzu, landatzen dituzu eta listo.

4 Beraz, zer egin behar duzue?
1970ko hamarkadan konturatu ziren bioaniztasuna galtzen ari zela eta hazi banku batzuetan jendeak emandako herrietako haziak gordetzen hasi ziren. Udaletik harremanetan jarri ziren banku horiekin bertako haziak lortzeko, eta orain berreskuratzeko eskatu dute. Sakanako haziak bidaltzeko prozesua geldoa da. Jaso nuen lehenengo hazia Ihabarko perejila izan zen. Hazia hartzen duzu, ereiten duzu, eta gero landarea lortzen denean landare hori banatzen duzu, eta beste batzuk hazirako gordetzen dituzu.

5 Lana eta ardura ere dadira.
Pertsona bat baino gehiago arduratzen da hazi horiek landatzeaz, ereiteaz eta ugaltzeaz. Jendearen artean banatzen da. Komeni da landare osasuntsuak eta bioaniztasun gehiago izateko ahalik eta landare gehienen haziak jasotzea. Nik hiru letxuga uzten baditut eta Egiarretako beste batek beste hiru, nahasten dira, eta hobe izango da barietate hori mantentzen laguntzeko.

6 Jateko aukera izan duzue?
Landare batzuekin, bai. Adibidez, txitxiloak oso gutxi eman zizkiguten eta ez ditugu jan, baina datorren urtean hazi gehiago izango ditugunez... Letxugak jan ditugu eta Ihabarko barietateko azak eman zizkiguten ere. Hamazazpi eman zizkiguten eta hamar bat jateko aukera izango dugu. Mantentzeko ona da probatzea ere.

7 Desberdintasunik nabaritzen dira?
Desberdina ikusten da. Adibidez, letxuga mota asko daude: kukulu handiagoak edo txikiagoak dituzte, hosto gehiago dituztenak... Uda honetan jan genituen hemengo letxuga horiek hosto asko zuten eta oso handiak ziren. Haritz hosto delakoaren antzekoa zen. Oso goxoa. Lakuntzako kalabazin beltza ere finagoa da.

8 Noiz biltzen zarete?
Normalean hazia erein baina pixka bat lehenago. Orain, udazkenean, bildu ginen. Bioaniztasun Whatsapp taldean 50 bat pertsona gaude, baina haziak ugaltzeko bileran hamabi edo hamalau pertsona egongo gara.

9 Baldintzaren bat bete behar zenuten?
Ez. Baratzea izatea. Gero batzuk barietate batzuk hartu dituzte, eta beste batzuk besteak. Esaterako, nik esan nuen ez nituela guztiak hartuko, gero jango nituenak hartuko nituela. Gainera, landare batzuk errazago hibridatzen dira, eta hori ez zaigu komeni. Beste barietate bateko landare berdina baldin baduzu oso gertu eta erraz hibridatzen badira, hurrengoan ez duzu ez bata ez bestea izango. Ona egongo da, baina ez da guk nahi duguna. Hori kontuan izan behar da ere.

10 Landareak hobe egokitzen direla nabaritu duzu?
Edozein landarek eskatzen duen lana eskatzen dute. Letxugak jartzen badituzu asko ureztatu behar dituzu, babak gutxi... Oraindik goiz da esateko hobe egokitzen diren. Orain arte ez nituen letxugak edo babak ereiten, eta orain Hiriberriko hazi batzuk erein ditut. Ez dakit nola aterako zaizkidan. Baina nabaritu dut aza, brokoliak, romaneskuak eta famili horretakoak izaten dituzte har batzuk eta Ihabarko azak aurten eman dizkiguten landareetatik hostoak garbi daudela. Ikusiko dugu aurrerago.

11 Nola kontserbatzen dituzue?
Haziak gordetzen ditugu landatzeko garaia iritsi arte. Hazia oso lehorra egon behar da. Landarea lehortzen utzi behar da, ondoren, txikitzen da hazia ateratzeko eta bahetzen dira. Garbitzen joaten dira hazia lortu arte eta gero poltsa batean sartzen dira eta poltsa hori kristalezko bote batean. Garrantzitsuena lehortzea eta lehorra egotea da.